

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2020-09-28 OSTIRALA / 7:44 ZENBATA / 2. ARDIA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE EUS TOIKOM

**INOIZKO
SAN MIGEL EGUNIK
ARRAROENA**



Bi lizarratar kalean hizketan. ARTXIBOA

Herri bizia amets

Mamu bat dabil Sakanan barna. Herri txikietan gehiago ikusten dute despopulazioaren itzala. Asteburuetako jende "dopingaz" aparte, urteko egun guztiak herrian ematen duten horiena da herriaren etorkizunari buruzko kezka. Zerbitzu faltaren inguruko

Alfredo Alvaro Igoa LIZARRAGA

Lizarragako eskola itxi zela 25 urte bete dira. Ordutik hainbat urte pasa dira Lizarragan haur bat bera jaio gabe. Ergoienako Udalak, jaiotza tasa sustatzeko, ibarrean erroldatutako jaio berrien gurasoei dirulaguntzak ematen dizkie, urtero bizpahiru izaten dira hiru herrien artean. Eskolan ikasle izan ziren, gaur egun herrian bizi eta guraso diren Josune Andueza Osteriz eta Patxi Otamendi Goikoetxearengana jo dugu eskolaz eta herriaz hizketatzeko.

Orduko eskolaz

Lizarragako eskolan 3 urtetatik 11 urtera egoten ziren. Anduezak argitu duenez, "Oinarritzko Hezkuntza Orokorreko 6. mailatik

8.era Etxarri Aranazko eskolan ikasten genuen". Otamendik gaineratu duenez, Lizarragan "hainbat edadetakoak geunden, denak gela berean, batzuk alde batera eta besteak bestera. Ez da orain bezala, bakoitza bere mailakoekin gela batean". Andueza ikasten hasi zenean bi gela zeuden: "Goitti, gazteenak, euskaraz, eta beheitti zaharrenak, gaztelaniaz. Hala egin zuten nire anaiak eta ahizpak. Baina orain 43 urte dituztenak D ereduan hasi ziren".

**"LIZARRAGAN BIZI
BALDIN BAZARA
AUTOA, BAI EDO BAI,
BEHAR DUZU,
EDOZERTARAKO"**

Gela bakar haietan zenbat ikasle egoten ziren galdetuta Otamendik 15-16 esan digu, Anduezak dozenaren bat. Eta gaineratu du: "eskola zabalik mantentzeko uste dut eskatzen zutela zazpi edo bederatzi haur egotea". Eskolako atsedena? "Eguraldi ona baldin bazegoen, parkean. Eta txarrek frontoian". Behin klaseak bukatuta, Otamendik esan duenez, "herrian barna jolasten ginen. Udan basoan txabolak egiten eta, horrela. Etxeko lanak bazeuden, haiek egin". Anduezak haur guztiak batera jolastearen oroitzapena du. Baita lehen elur gehiago egiten zuela eta elurretan jolasten zirela.

Biak Etxarriko eskolan ikasten zeudela itxi zen herriko eskola. Lizarragako eskolan irakasle

bakarra egoten zen. Otamendik gogoan ditu Lizarragan izandako hiru irakasleren izenak: "Iñaki, Camino Mendiluze eta, egon zen azkena, Agurtzane Atxa; nire anaia gazteagoarekin-eta ibili zen". Anduezak zehaztu duenez, "urte gehien egon zena, lauzpabost Atxa izan zen. Urdindarra". Eta gogoan du ere ikasturtetik ikasturtera irakasleak aldatzen zizutela. Horregatik, Anduezak gaineratu du irakasle asko izan zirela Lizarragatik pasa zirenak.

Lizarragako aldia bukatuta Etxarrira autobusez joaten ziren biak. Otamendik azaldu zigunez, "autobusa hartzen genuen 09:00ak aldera eta 16:30ean etortzen ginen. Jangelan gelditzen ginen".

Duela hiru hamarkadako Lizarraga hartan hurrek bazuten goxokiak eta bestelakoak erosteko aukera. Anduezak eman digu horren berri: "eskola ondoan Mariak denda zeukan. Estankoa

**"JENDEAREKIN EGON
NAHI BADUZU,
TABERNARA. APARTE,
ELKARTEAK, ORAIN
ITXITA DAUDE"**

esaten genioena ere bazegoen, taberna zen eta litxarrerriak ere bazituen. Portupe taberna. Eskolastikak ere denda zeukan, eta han ere litxarrerriak egoten ziren. Beranduago Txominek harategia zabaldu zuen. Orain baino zerbitzu gehiago zeuden".

Seme-alabak

Batak eta besteak seme-alabak dituzte, "eta txikitatik autobusez joaten dira klasera". Otamendik azaldu duenez, "autobusean joaten dira eta, gu bezala, jantokian gelditzen dira. Orain jardunaldi jarraitua dute eta 15:00etan etortzen dira etxera. Beste urte batzuetan 17:00ak aldera". Anduezaren zaharrena institutuan dago, "07:40an hartzen du autobusa eta, besteak, 08:20 aldera. Eta gero buelta 14:45ean eta 15:15ean. Bazkaltzeko nahikoa berandu".

Bazkaldu ondoren haien seme-alabek zer egiten duten galdetuta, Otamendik esan digunez, "etxeko lanak badituzte, badakite lehenengo horiek egin behar dituztela, eta gero izanen dutela denbora jolasteko, edo nahi dutena egiteko". Gaineratu duenez, "egunaren arabera eskolaz kanpoko jarduerak dituzte, eta Etxarrira joaten gara". Anduezak Arbizu ere aipatu du.

Amak gaineratu duenez, seme-alabak "beraien lagunekin, gehienetan, Etxarrin gelditzen dira. Hemen ez dago haur askorik eta gehienetan... Lehen kintak handiagoak ginen. Baina orain bizpahiru dira. Eta kintaren batean bakarria dago agian". Aitak, berriaz, esan duenez, bere semeak Lizarragan gelditzen dira. "Gure hirurak eta bat gehiago daude. Gazteagoa da, baina arratsaldeetan elkartzen dira. Asteburuetan kanpoko jendea etortzen da. Baina astez, gutxi, nire hirurak eta beste bat".

Etxeko lanak egiteko gero eta beharrezkoagoa da Internet. Anduezak azaldu digu lehen Movistarren zerbitzua kontratatua zuela. "Baina nahiko gaizki ibiltzen zen, seinalea ez zelako oso ongi iristen. Askotan gelditzen zen. Etxeko lanak egiten edo bi-



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



deo bat jaisten hasten ziren eta mozturik gelditzen zen. Ezin genuen ez ikusi ez ezer egin". Gaur egun Lizarragako etxe gehienetan Sisnet dute. Anduezak azaldu duenez, "antena paraboliko moduko bat, txikiagoa da, jarrita daukagu. Errepikagailua Artxuetan jarrita dago eta, orain, nahiko ongi ibiltzen da Internet".

Konfinamenduan Interneteko zer moduzko zerbitzua izan zuten galdetuta Anduezak jakinarazi duenez, "arazo bakarra egun batean egon zen. Ez dakit jende asko zegoelako konektatuta, hain zera egon zelako edo zerbait, goiz batean ez zen oso ongi ibili. Baina arratsaldean arazoa konponduta zegoen". Otamendik esan duenez, "konfinamenduarekin ez dugu horrelako problema handirik izan, baina jaitsi behar zenuen dokumentuaren arabera ikusten zen justu xamar gelditzen zela. Bestela nahiko ongi. Badaikit udala begiratzan ari dela beste moduren batera ADSL edo zerbait sartzeko".

Gurasoek Lizarragan goxokiak eta beste erosteko aukera izan zuten. Seme-alabek? "Orain Bargazpin zer edo zer badago, gauza handirik ez baina, beno. Elkartean pipak, patatak eta zerbait gehiago egoten da", jakinarazi du Anduezak. Hala berretsi du Otamendik, gogoraziz gaur egun herrian dendarik ez dagoela. Farmazia da salbuespena. Bestela, gaineratu duenez, "jendearekin egon nahi baduzu, tabernara. Aparte, elkarreak. Baina orain COVID-19arekin itxita daude". Haurrak jolas parkean eta herri guztia eskola zenari itsatsia dagoen frontoian aritu daitezke. Jakina, nahi beste mendu dute lizerratarrek.

Lizarragaz

Biek herriaren etorkizunarekin kezka dute. Anduezak esan duenez, "herriko batz besteko adina nahiko altua izanen da, agian, 70 urte inguru. Edadekoa asko dago eta gaztea, gutxi". Otamendik berretsi egin du: "ikusten da jendea zahartzen ari dela eta jende gaztea ez dela etortzen". Hala ere, jakinarazi duenez, lau bikote gazte herrian bizitzen gelditu dira. "Nik hiru seme ditut, eta besteek bina. Orain haurrak badaude. Gu kenduta, urte batzuk ematen ditugu herrian jende berria sartu ez dena. Etorri diren kanpotarrak asteburuak pasatzera etortzen dira. Baina astez...



Eskola hartu zuen eraikina. Eskuinekoa Jai Alai frontoia da. Ezkerrean, kalearen beste aldean, parkea dago.

Hemen falta dena da jendea bizitzera etortzea da". Anduezak azaldu duenez, bikote batzuek etxea erosi dute, "baina, momentuz, asteburu pasatzera etortzen dira. Etorriko balira, askoz hobe, seme dexente dituztelako".

Etxebizitzaren gaiari erreparatu dio Anduezak: "jendeak etxea egiteko lurrik ez du. Saltzeko ere etxe gutxi daude. Eta, azkenean, jendea beste herrietara joaten da. Batek garesti saldu nahi du eta besteak merke erosi. Eta, azkenean, ez da ezer saltzen".

Otamendik azaldu duenez, "etxeren bat saltzeko dago. Ez dakit zenbat eskatuko duten. Edo herrira etortzeko asko balio du. Kontzejuak saltzeko partzela bat du. Nik, esaterako, kontzejuak saltzeko zuen partzela bat erosi eta han bizi gara. Beste partzela bat saltzeko dute. Jendeak galdetu du, baina hor dago".



"GAZTE BATZUK HERRIAN GELDITZEKO ASMOA BADUTE. GERO, IA AHAL DUTEN" PATXI OTAMENDI

Anduezak mugikortasunari ere heldu dio: "Lizarragan bizi baldin bazara autoa, bai edo bai, behar duzu". Seme-alabak eskolaz kanpoko jardueretara eta bestelakoetara autoz jaisten ditu. "Lehen, gu joaten ginenean, Portupeco atarira ateratzen ginen eta ia autoren bat etortzen zen eta Etxarrira jaisten ginen. Gero Ronkon etxean gelditzen ginen eta, normalean, norbait pasatzen zen. Baina, orain, autobiarekin jende asko ez da Etxarririko bidegurutzetik pasatzen". La Estelle sa autobus konpainiak ere Lizarragatik eta Etxarri Aranaztik pasatzeari utzi zion.

Etorkizunaz

Badira boladan izaten diren hitzak eta horietako bat gaur egun despopulazio hitza da. Hori entzutean burura zer etortzen zaien galdetuta, Anduezak esan digunez, "Lizarraga despopulatu urte dexentetara gertatuko litzateke. Ez litzaidake asko gustatuko hori gertatzea". Otamendik lehen esandakoa errepikatu du, "ni baino pixka bat zaharragoak joan ziren moduan, nire kintakoak asko gelditu gara. Eta gazte batzuk badute asmoa gelditzeko. Gero beste gauza bat da ia ahal duten..."

Anduezak aitortu duenez, "tabernarekin, orain, mugimendu handia dago. Nabari da jendea ibiltzen dela. Oraingo, momentuz, gerra pixka bat emanen dugu". Otamendik hari horri helduz: "taberna kenduta, medikua ere igotzen da.

Baina gainontzeko gauzak, haurrekin, esaterako, eskolaz kanpoko jarduerak-eta, dena Etxarrira jaisten gara. Gertu daukagu. Baina, herrian ikusten dena da jende berria sartzan ez bada, gero eta gehiago ixten ari direla. Jende zaharra hil da eta bere seme-alabak, esaterako, Iruñean bizi badira, ez dira herrira bueltatzen".

Eta mugikortasunaren gaiari heldu dio: "lehen beste modu batera zen. Esate baterako, Iruñera lanera joaten zena, etxea erosi eta han gelditzen zen. Agian asteburuan bueltatzen zen, baina... Nik kanpoan lan egiten dut, Donostian, Bilbon edo Gasteizen. Egunero etortzen naiz etxera. Orain autobia egonda gertuago. Lehen, behar bada, zailtasun gehiago egonen ziren Iruñera joateko. Urrutiago bezala egiten zen. Leku berdinean daude hiriak



"EZ LITZAIDAKE ASKO GUSTATUKO LIZARRAGA DESPOPULATZEA" JOSUNE ANDUEZA

Populazioaren garapena

Urtea	Biztanleria
1999	224
2004	212
2009	212
2014	194
2019	172

baina bertan zaudenaren sentsazioa ematen du orain".

Hamar urte barru herria nola ikusten duten galdetuta, Anduezak: "asteburu oso beteta, baina jende zahar asko dagoenez, hamar urtetara despopulatuta. Askok gainera. Orain ez dakit zenbat garen, 180 bat. Hamar urte barru 120, gutxi gorabehera". Otamendik ere antzeko pentsatzen du: "handitu beharrean txikitu egiten da. Gaudenak hemen egonen gara. Baina jende gazterik etortzen ez bada egunetik egunera jende gutxiago herrian".

Eskola zenak andreendako ikastaroak-eta hartzen ditu gaur egun. Anduezak jakinarazi digunez, "haurrendako lokal bat egin genuen, nahiko gela ona delako, berogailua eta beste ditu. Nire seme-alabak txikiak zirenean prestatu genuen. Lehen, txikiak zirela, dexente egoten ginen. Baina gehienak koxkortu dira, eta ez gara elkartzen. Herriak duen lokal bat da, baina ez da asko erabiltzen; hitzaldiren bat, bideo emanaldiren bat... Baina gutxitan zabalitzen da".

Ez bataz ez besteak ez dute uste Lizarragako eskola atzera ere zabalduko denik. Otamendiren iritziz, "Etxarririko egonda, ez. Nahikoa lan dugu Etxarrin beste irakasle bat lortu eta gela bat bitan banatzeko. Horretarako arazoa badago, Lizarragan eskola zabalteko moduan..." Eta Andueza zalantzati: "nik ez dakit eskola berriro zabalteko nahiko nukeen. Gu haur gutxi ginen eta ongi konpontzen ginen. Erlazioak mantentzeko ikusten dut agian hobe dela gelak handiagoak izatea. Bere gauza onak eta txarrak ditu. Ez dakit. Oso zaila da eskola berriro zabalteko. Oraingo lokalak ez dakit baldintzak beteko litzatekeen".



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Beldurrak

Aurrekoan, antsietatea gaintzeko errutina sendagai hoberena zela entzun nuen nonbait. Errutina, etorkizun aurreikusitako baten segurtasun erlatiboa. Aurrekusten erraza den mundu baten egunerokotasunaren pilula. Hark markatzen ditu gure denbora eta soson nondik norakoak, gutxieneko ziurtasun horren barruan. Hark esaten digu, zorretan sartu edo oporretan joan gaitezken. Hark bizitzako etapa bakoitzean espero dezakegunaren isla. Errutina da kontsumitzaile soldatapekoaren aseguru eta zutarri aringarria, ezjakintasunaren olatuetan helduleku.

Baina errutina gabeko munduan, aldakortasunaren itsaso zakar asaldatuan, dardar egiten dute sistemaren oinarriek. Beldurrak gizartea izozten du, auto baten argiek zorrigaitzoko orkatzen pare, gaueko errepidean. Beldurrak babesa eskatzen du, babesa lehenesten. Haregatik ordaintzera bideratzen ditu gure ahaleginak, eskubideak saltzeraino sarri. Beldur salda lodian, azeriak nagusi dira. Azeri

ALDAKETETARA MOLDATZEN JAKITEA TOKATU ZAIGU, HAIK ONARTZERA BULTZATU GAITU GURE DENBORAK

gorbatadunak, trufazaleak, zikoitzak, zaharrak eta gazteak. Besteen beldurrean aukera ikusten dutenak. Haiengandik babesten zaila du beldurraren ziztada jasan duen zorrigaitzokoak.

Antsietatea, beldurraren alaba. Hura errutinak

akabatzen zuen, baina errutina gabe sendagairik ez. Aldaketetara moldatzen jakitea tokatu zaigu, haiek onartzera bultzatu gaitu gure denborak. Gure mugak onartu eta pausuak neurtzera eraman gaitu. Azeriei irribarre batez erantzuten irakatsi digu. Aske izatearen baitan baitaude arrisku eta beldurrak, eta haiek garaitzean, gure nortasun eta estimuaren garaipena.

GUTUNAK: Karaktereak, gehenez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK



Antton Telleria
@antton_telleria

Erosketak mugikorrarekin ordaintzen hasi dira Arbizum.

2:30 PM · 2020 ira. 21 · Twitter Web App

HARA ZER DIEN

Elkartasun eza ere, birusa

SAKANAKO MANKOMUNITATEKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Munduko hainbat tokitan hainbat pertsona hiltzeko helburuarekin sortzen ditugun armek bezainbeste hiltzen du elkartasun ezak.

Aspaldi da munduko gutxi batzuek erabaki dutela zeinek hil behar duen eta nola. Zeinek? Txirrotuak, baliabide eskasekoak, orokortasunetik ateratzen direnak, ezberdinak, larruzal kolore ilun xamarra dutenak, justizia soziala aldarrikatzen dutenak... Nola? Gerrateetan, bonbardaketetan, ihesaldietan, jazarpenetan, belauna lepoan jarrita, errefuxiatuen kanpamentuei su emanez, ezaugarri anitzeko hainbat birusen zabalkundeaz...

Gaur egun pairatzen ari garen birusa, COVID-19, globalizatu da, elkartasun eza bezala. Ez hiritar xumea, ordea. Azken boladan mundu mailan gertatzen ari diren hilketa selektiboan aurrean gizarteak hartu duen isiltze

jarrera beste birus hilkor baten itxura hartzen ari da: elkartasun ezarena.

Zentzugabeko harresien sorrera Europar Batasunarekin eskutik? Batasuna? Norena? Norekin? Ez ote gara jabetuko, bizitza salbatu nahian sorterritik ateratzen direnen tokian egon gaitezkeela? Horren aurrean elkartasuna dugula "arma" eraginkorretako bat?

Ez al gara ohartzen, gure isiltasunak hil ere egiten duela? Pixkanaka, pixkanaka? Ikusezintasunean pertsonak jartzeak bezala? Jarri al gara pentsatzen gaurko COVID-ak nola eragin dezakeen milaka pertsona harrapaturik dauden kontzentrazio kanpamentuetan? Mespretzuzko begiradek ere hil dezaketenaz? Hitz ezegokiek bezala? Isilean, baina bai, edozein birusak bezala.

Ez ote dugu ezertxo ere egin behar hainbat komunikabidek "saltzen" diguten "errealitate" okerraren aurrean?

Asko dira azken birusarekin hiltzen ari diren gizakiak. Eta zenbat dira urtero Mediterraneon soilik hiltzen direnak? Gizakiak horiek ere!

Elkartasuna da herrien xamurtasuna, eta herriak salbatuko du herria berriro ere. Praktika dezagun gizakiok bihotzean daramagun elkartasuna, birus guztietatik at.



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Alzelai Iriarte
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



2019ko Sanmigeletako txupinazoan Naizen elkartearen aldeko herri argazkia egin zuten Uharte Arakilen. UTZITAKOIA

Herriak ematen dituen sorpresak

Uharte Arakilgo familia bat Naizen elkarteko kidea da. 2019ko San Migel festetako txupinazoa elkartearen omenez izan zen, eta elkartearen aldeko herri argazkia egin zuten. Ez da herriak izan duen elkartasun keinu bakarra

UHARTE ARAKIL

Sorpresa bat izan zen. "Aurreko egunetan herriko jende pila batek elkarteko kamisetak eskatzen zizkidan eta lankideendako zela esaten zidaten. Ni oso inozoa naiz, eta sinistu nuen". Baina iazko Uharte Arakilgo sanmigel festen txupinazorako plazara iritsi zirenean, herritar gehienek elastikoa jantzita zeramatzen. "Hor zerbait nabaritu genuen; ez genuen inolaz ere espero". Orduan, Txomin Uharte alkatea eta zinegotziak ere udaletzeko balkoira kamisetarekin atera ziren, txupinazoa bota zuten, eta Tafallako uholdeekin elkartasunezko eta Naizen elkartearen omenezko hitz batzuk bota zituen. "Oso hunkigarria izan zen. Hor erakutsi zidaten Uharte Arakil leku segurua dela, eta leku on batean gaudela".

"Normaltasunez" bizi du Uharte Arakilgo familia honek Naizen

elkarteko kide izatea. Naizen elkarte Euskal Herriko adingabe transexualen familien elkarte da. 2015. urtean zortzi kidek Chrysalis Euskal Herria osatu zuten, eta 2018. amaieran estatu mailako elkartearen ordezkartzitza izateari uztea erabaki zuten, eta 2019ko hasieran Naizen elkarte jaio zen. Ehun familia baino gehiagok osatzen dute gaur egun elkarte, tartean Uharte Arakilgo familia.

"Neska bat naiz"

Hamar eta sei urteko bi alaba dituzte: batek bulba du eta besteak zakila. "Betidanik pistak eman dizkigu, baina duela bi urte eta erdi inguru geroz eta gehiago esaten zigun bere sexu organoak ez zitzaizkiola gustatzen eta ama eta ahizpa bezala nahi zuela. Eskolara mototsarekin joaten zen eta printzesaz jantzen zenean, hori gustatzen zitzaion mutil bat

zela pentsatzen genuen". Baina egun batean negarrez iritsi zen eskolatik mutil bat zela esan ziotelako. "Ordura arte ez zuen planteatu ere egin mutiko bat zenik. Guk ez genizkien rolik ezarri eta panpinekin jolastan zuen mutiko bat izan zitekeela esan genion". Baina neska bat zen. "Esan zigun ezetz, ez zela mutiko bat, neska bat zela". Egundak batetik bestera armairu aldaketa egiten ari ziren. "Ikusi zuenean besteek ez zutelana neska bat ikusten aldarrikatatu zuen bere izaera".

Familiak onartzen duenez, "tristea da horrelako elkarteak egotea", baina "errealitatea hori da". Egoera hobetuz doala esan dute, eta duela hamar urteko egoerarekin alderatuta aurrerapauso asko eman dira. "Gure sentsibilitatea normala zen, izan beharko zena, baina gertutik gertatzen zaizunean laguntza

izatea eta legalki sor daitezkeen egoeretan laguntza izatea garrantzitsua da". Izan ere, "berria zara". Horregatik hasieran ez bazen ere, azkenean elkartearen sartu ziren. "Elkarrekin egotea eta gure alaba bera bezalako neskekin elkartzeko, garrantzitsua iruditzen zaigu ikustea ez dela bakarra".

Naizen elkartearen hilabetero familien topaketa bat egiten dute. "Harrigarria da" hilabetero familia berriak agertzen direla. "Familia berriak hartzen ditugu, hasten zarenean oso galduta zaudelako". Beldurra handia dute. "Errealitatean dauden baino askoz ere beldur handiago. Ama eta aita gisa nahi duzu zure alaba normaltasuna deitu dezakegun horren barruan egotea, ez sufritzea". Kanon horretatik ateratzen direnean "sufrituko duen beldurra ateratzen da".

Aldaketa nabarmenena oporretan egin zutela azaldu dute. Lehenengo beldurra "soinekoa jartzea eta kalera ateratzea" izan zen. Apalak dira eta ez zaie agerian geratzea gustatzen, "eta herri batera etortzea, kanpokoak garelako, eta neska batekin etortzea... airea hartu genuen eta aurrera egin genuen. Elkarrekin ateratzen ginen". Baina beldur horiek ez dira azaleratu. "Azkar konturatu ginen hanka sartze bat zela, beldurra oinarririk gabekoak zirela". Normaltasunez eta lasaitasunez bizi dira. "Bi alaba ditugu, edozein gurasok bezala".

"Argi geratu zaiguna da aurrez aurre joaten zarenean, eta norbaitek esaten dizunean soineko bat daramala eta azaltzen diozunean neska bat dela eta ez ginela konturatu, erantzuna ona da". Haurrek goxotasuna adierazten dutela diote. Gainera, alaba "asko aldatu" dela esan dute: "Lehen oso lotsatia zela, ez zuen hitz egiten...". Bere izaera adierazteari utzi ziotenetik "maitagarri" bat bihurtu da, eta herri guztiak ikusi ahal izan du. "Lasaitu da. Hasieran soineko erakargarrienak eta distiratsuenak eramaten zituen". Elkarteko kide askori gertatzen omen zaie hasieran "estereotipoak" jarraitzen dituztela, "adierazi behar dutela

"AZKAR KONTURATU GINEN HANKA SARTZE BAT ZELA, BELDUR HORIEK OINARRIRIK GABEKOAK ZIRELA"

hori direla". Baina behin etapa hori pasata, "edozein neska bezala" jantzen da. "Oso adierazgarria izan zen etxean berdintasunean hezten saiatu garelako rolak eta estereotipoak alboratuz. Eta batean soineko ponpoxoena jantzi nahi zuten. Nondik ikasi dute hori?". Haurrek kalean eta telebistan ikusten dituztenak errepikatze joera dute.


Herria

Herriarekin oso eskertuta daude. Ez bakarrik iazko txupinazoan egindako keinuagatik, baizik egunerokotasunean bizi dutenagatik: "Oso gustura gaude. Ez du preziorik". Jendeak "interesa adierazten" duela aipatu dute, "eta horren harira komentarioak egiten ditu. Baina normaltasunaren barruan sartzen diren komentarioak dira". Errepikatuenetarikoen artean "oso txikia" dela esatea da, eta elkartearen bidez egoera eta estereotipoak aurre egiten ikasten dute: "Hezi behar da; argudio horiei buelta eman behar zaie". Haurra ez da gogoratzen aurreko garaiaz, eta, beraz, besteek ere ez dutela oroitzen uste du. Herrian eta bestelako egoeretan bizi ez badute ere, ez dituzte inoiz ulertuko "intolerantzia eta errespetu faltak". Hortaz, badakite egoera zailekin eta pertsona "gaiztoekin" elkartuko direla, baina "bi alabekin, helduenarekin eta txikiarekin".

Uharte Arakilgo herrian hamaika izan dira elkartasun adierazpenak. Esaterako, Adamo Nafarroako minbizia duten haurrendako laguntza elkartearen aldeko zenbait ekimen egiten ari dira egunotan. Igandean, hilak 27, 11:00etan, pilotalekuan, Adanoren aldeko Zumbathoia egingen dute. 2019an Tafallan izandako uholdeen aurrean, eta Tafallara bidaltzeko dirua lortzeko hainbat ekimen egin zituzten.

Autobusa

Haur transexualitatearen inguruko sentsibilitatea "betidanik" izan dute. "Egia esan pixka bat Hazte oir autobusari eskertu behar diogu. Hainbeste hitz egin zenez, haur transexualitateari buruz beraie esker jakin genuela". Momentu horretan ez zekiten alaba bat "egoera horretan" izango zutenik, baina "konzientzia" mugitu zitzaizen. Ekainen heriotza mugarri izan zen. "Elkarretaratzeraz joan ginen barruan jo zigulako".



Eguraldiak lagunduz gero, asteartean Aralarra oinez igoko denik izanen da ere. ARTXIBOA

Pandemiak San Migel eguna itxuraldatu du

San Migelgo bederatzirrena dela-eta, Aralarko santutegian egunero, 18:00etan, meza dago, 29ra arte. COVID-19agatik San Migel egunean santutegiak jendetzarik ezin izanen duenez hartu aurreko egunetan joatea gomendatu dute

UHARTE ARAKIL

Jendeak San Migeli dion debozioa argi eta garbi ikusten da urtean zehar. Baina San Migel egunean, irailaren 29an, are gehiago nabarmen da. Aralarko Santutegian jendetza pilatzen da goizean-goizetik, meza entzun eta ondoren aingeruaren irudia gurtzeko. COVID-19 gaitza ez zabaltzeko osasun arloko agintariek makina bat neurri ezarri dituzte, haien artean gurtza tokietan jende pilaketak saihesteko edukiera erdira murriztea. Horrekin jende pilaketak saihestu eta pertsonen arteko distantziak mantendu nahi dituzte, pandemia hedatu ez dadin.

Osasun araudira egokitu dira Aralarko santutegian ere, eta ezin izanen da jende pilaketarik izan heldu den asteartean, San Migel egunean. Horregatik, goiaingeruaren debotoei eskatu diete aurretik antolatu diren elizkizunetara joateko, jende guztia 29an ez joateko. San Migelgo bederatzirrena astearte-

ra arte izanen da. Egunero, 18:00etan, meza izanen da. Elizkizun bakoitzaren ondoren aingerua gurtzeko aukera izanen da. Baina ez ohi bezala, musu emanaz. Fededunak burua makurtuko du eta irudia daramanak haren parean gurutzaren seinalea egiten du.

San Migelgo jai nagusian mezak 09:00etan, 10:00etan, 11:00etan eta 12:30ean izanen dira. Azken hori meza nagusia izanen da eta Francisco Perez Gonzalez artzapezpikuak zuzenduko du. Elizkizun horretan berreskuratu duten aldare aurre-erromanikoa sagaratuko dute. Asteartean 17:00etan eta 18:00etan izanen dira mezak. Gainera, egoera berezia kontuan hartuta, aurtun

120 PERTSONA SARTZEN DIRA SANTUTEGIAN, BETETZEAN EZINEN DA BESTE INOR SARTU

19:30ean beste elizkizun bat izanen da: Uharthe Arakilgo elizan. Meza horretan Aralarko aingeruaren irudia aldarean izanen da eta akaberan hura gurtzeko aukera izanen dute fededunek.

Bertan behera

Aurtun ez da haurrak San Migel aingeruari aurkezteko ekitaldirik egiten. Garilaren 19an egitekoa zen, baina COVID-19 gaitzagatik bertan behera gelditu zen. Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak udazkenean egiteko aukera aztertu du, baina, azkenik, bertan behera gelditu da. 2021eko garilaren 19rako jarrri dute aurkezpen berria.

Bestalde, azken urtean hildako Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiako, Anaitasuneko kideen eta Ongile guztiak gogoan izateko lastaileko aurreneko igandean egiten den meza ere bertan behera gelditu dela jakinarazi du kofradiak. Gaudemus abesbatza gregorianoak abestu ohi du elizkizun horretan..



Morian jatekoa banatzen. DONATA COLUMBRO

Moriako errefuxiatu gunearen aldeko jaki bilketa

Zaporeak-ek bilketa egingen du gaur eta bihar Hiriberrin, Irañetan, Uhartan, Bakaikun, Olatzagutian eta Ziordian

SAKANA

Greziako Lesbos uharterko Moriako errefuxiatu eremuan sutea izan zen hilaren 8an. Erabat kixkali zen eta, horren ondorioz, 13.000 pertsona zerua goian eta lurra behean dutela gelditu dira, ezer gabe. Errepide bazterrean egotera behartu zituen poliziak. Hori izan zen aurreneko bizpahiru egunetan Greziako Gobernuak hartutako neurri bakarra. Kale gorriaren zeuden pertsonak artateaz gobernu kanpoko erakundeak arduratu ziren. Migratutako pertsona horiei jatekoa bermatzen lan egiten dute Zaporeak gobernu kanpoko erakunde boluntarioak. Egun haietan 4.500 anoa banatu zituzten.

Errefuxiatuendako kanpamendu berria eraiki dute. 5.000 pertsonendako tokia du, baina 9.500 sartu dituzte beraien gogoz kontra. Zaporeak-etik azaldu dutenez, "helburua lehengoko egoerara itzultzea da; hau da, pertsona errefuxiatuak Greziako irlatan konfinatuta edukitzea Europako Batauneko herrialdeek gaian esku hartzen ez duten bitartean". Gaztigatu dutenez, "suteak pertsona errefuxiatuen asilo eskaeran prozesuko dokumentazio guztia erre zuen eta orain, kanpaleku barruan dauden 9.500 pertsona errefuxiatuak erregistratu behar dituzte eta bestelako tramiteak egin, horrela beharrezkoa duten laguntza emateko".

Suteak eragindako ondorio latzak neurri batean arindu ahal izateko, eta pertsona errefuxiatuen artean gaixo kronikoak,

haurdunak, abusuak jasan dituztenak eta adin txikikoak dira zaugarrienak. Haiei janari duna eskaini ahal izateko, Zaporeak-ek Euskal Herrian larrialdiko janari bilketa antolatu du gaur eta bihar. Erakundeak Lesbosen duen sukaldean prestatzen dituen jakien osagaiak bildu nahi ditu, esaterako: arroz luzea, makarroiak, lekariak (dilistak, txitxirioak, babarrunak), atuna eta sardinak latan, oliba olioak, espeziak (piperbeltza, piperbeltz zuria, kuminoa, curry-a), esne hautsa eta energia barrak.

Sakanan non

Hiriberrin Goialde kaleko 13. zenbakian jasoko dituzte jakiak, gaur eta bihar 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. **Irañetan** bilketa udaletxean egingen dute bihar, 11:30etik 13:30era. **Uharthe Arakilen**, berri, udaletxeko ezkaratzean gaur eta bihar 18:00etatik 20:00etara. **Bakaikun** udaletxera eraman beharko dira jakiak gaur eta bihar. Altsasun BM-n eta Eroskin 09:00etatik 13:00etara larunbatean. **Olatzagutian** frontoian izanen dira boluntarioak, gaur 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta bihar 10:00etatik 14:00etara. Azkenik, **Ziordian** gaztetxe ondoan egonen dira, bihar, 10:00etatik aurrera.

Zaporeak-i donazioak egiteko: Kutxabank: ES32 2095 5011 80 9115250322 eta Laboral Kutxa: ES71 3035 0103 88 1030035880. Bizum bidez Zaporeak Proiektua. Bidalketa kodea: 00435.



16 urtetik gorakoek eman dezakete izena. Webguneaz aparte herrietan ere izena emateko aukera izanen da. ARTXIBOA

Euskaraldia, bi izen emateak zabalik

Entitateek Arigune gisa izena emateko epea igandean despedituko da. Belarriprest edo ahobizi rolak hartu nahi dituztenek azaroaren 19ra arte izena eman dezakete. Baterako edo besterako www.euskaraldia.eus web orrira jo behar da

SAKANA

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingen da euskararen erabilera handitzeko ariketa soziala, Euskaraldia. Helburua argia da: euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan hitz egitea. Horretarako, lortu nahi da gaur egun gaztelaniaz egiten diren makina bat elkarrizketa elebidunak bihurtzea, eta hizlari guztiak eroso sentitzea. Hori lortzeko ezinbesteko figura da belarriprestena. Beraiek dira euskaraz lasai hitz egiteko sarea zabaltzen duten oinarritzko pieza.

Parte hartzaileek bi rol horien artean aukeratu beharko dute: belarriprest edo ahobizi. Baina aukeraketa egiterakoan gauza bat argi izan behar da: rolek ez dute zerikusirik euskararen eza-gutza mailarekin, jarrerarekin bat dira. Beraz, euskaraz ongi moldatzen ez denak ez du derrigorrez belarriprest izan behar, ezta ongi dakienak beti ahobizi izan behar. Belarriprest txapa eramanen duen pertsonak adierazten du

berarekin euskaraz hitz egin daitekeela, lasai egiteko berari euskaraz. Beste kontu bat da zein hizkuntzatan erantzuten duen: batzuetan euskaraz izanen da, gaztelaniaz bestetan. Ahobizi txapa dutenek euskaraz ulertzen duten guztiarekin euskaraz hitz egingen du uneoro. Eta, beti, lehen hitza euskaraz esanen du. Eta elkarrizketa elebidunetan euskarari eutsiko dio. Jarrera kontua, esan bezala.

Horregatik, egokia da ariketa hasi aurretik zehaztea zein jarrera hartu nahi duen norberak, eta horren arabera rola hautatu. Euskaraldian parte hartzeko izena eman behar da. Gero txapa jaso ahal izateko, herriko Euskaraldia batzordea parte hartzai-

**LEHEN EUSKARALDIAN
2.631 SAKANDARREK
PARTE HARTU ZUTEN,
538 BELARRIPREST
ETA 2.093 AHOBIZI**

leekin harremanetan jartzeko. Bestalde, aurreko edizioan bezala, inkesta bidali eta bizipenak jaso nahi dira.

Ariguneak

Aurreneko edizioan sumatu zen hutsuneetako bat izan zen pertsonengan uzten zela ardura guztia. Baina pertsonak hainbat antolakundetan parte hartzen dugu: kirol, kultur edo gastronomia elkarte, gizarte eragile, enpresa, denda, erakunde edo administrazioa. Entitateetan ere euskararen erabilerari bultzada emateko sortu dira Ariguneak, euskaraz aritzeko tokiak. Bi motatakoak daude, barne eta kanpo Arigunean. Aurrenekoa entitate barruan sortzen da euskararen erabilera handitzeko. Esaterako, lantegi bateko makina edo bulegoko langileak. Kanpo Arigunearen bidez, berriz, entitateek bermatzen dute jendeak beraiekin euskarazko harremanak izatea. Arigune gisa izena emateko epea igandean despedituko da.

2020-2021
IKASTURTEA
CURSO
2020-2021

La próxima,
en euskera

Hurrengoan,
euskaraz!



GOZATU EUSKARA! DISFRUTA EN EL EUSKALTEGI

EUSKARA IKASTEKO TALDEAK
SAKANAN (AEK):

GRUPOS PARA APRENDER EUSKERA
EN SAKANA:

Altsasu

Iniciación 19:00-21:00 (1, 2, 3, 4)

A1 09:00-11:40 (1, 2, 3)

A1 18:00-20:00 (1, 2, 3, 4)

A2 09:15-11:15 (1, 2, 3, 4)

A2 18:00-20:00 (1, 2, 3, 4)

B1 09:20-12:00 (1, 2, 4)

B2 19:00-21:00 (1, 2, 3, 4)

EGA 17:00-19:00 (1, 2, 4)

Autoikaskuntza

Mintzakide dohainik

Etxarri Aranatz

B1 15:00-16:30 (1, 2, 4, 5)

Irurtzun

A1 09:30-11:30 (1, 2, 4)

A2 15:00-16:00 (1, 2, 3, 4)

B1-B2 09:30-12:00 (1, 3, 4)

Dirulaguntzak: Sakanako Mankomunitateak (%50),
zenbait udalek eta Nafarroako Gobernuak.

Informazio gehiago:

Euskara Zerbitzuan:

948 464 840



EUSKALTEGI GEHIAGO/MÁS EUSKALTEGIS: WWW.ELAIDE.EUS





Astleheneroko pentsio duinen aldeko kontzentrazioa baliatu zuten manifestazioa aurkezteko.

Gaurko eta biharko pentsio duinen alde

Larunbatean, 19:00etan, Altsasuko foru plazatik abiatuta. Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea aldarrikatuko dute. Eta gaur egungo langileek etorkizunean pentsio duina izan dezaten, behar bezala kotizatzeke, gutxienez 1.200 euro kobratzea

SAKANA

Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna lastailaren 1ean ospatzen da. Heldu den ostegunean izanen da. Bestalde, Espainiako Diputatuen Kongresuko Toledoko Ituneko Batzordea bilerak egiten ari da. Pentsio sistemaren erreforma egiteko aholkuak lehenbailehen eman nahi ditu. Lanak aurreratuak badituzte ere, ez dituzte oraindik despeditu. Taldeek asteartean aurkeztuko dituzte bere ondorioak eta haiek oinarri hartuta hasiko dira lanean. Espainiako Gobernuaren nahia litzateke aholkuak lehenbailehen jasotzea, gero haiek 2021eko aurrekontuan jasotzeko eta, horrela, pentsioak dekretu bidez ez eguneratzeko, aurten gertatu den moduan.

Testuinguru horretan, "eta hartu behar dituzten erabakiak pixka bat baldintzatzeko", Sakanako Jubilatuen, Pentsionisten eta Adinekoen Koordinakundeak manifestazioa deitu du larunbaterako. Koordinakundeko kideek

nahi dute gaur egungo pentsioak duinak izatea. Horregatik, aldarrikatzen du gaur egun 1.080 euroko pentsioa. Gainera, etorkizuneko pentsioak ere koordinakundearen kezka dira: "gaur egun lanean ari diren pertsonak kotizatzea nahi dugu, etorkizunean pentsio duina izateko". Horregatik exijitu dute 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzea, "kotizazio txikia ez izateko. Bestela, kotizazio txikiekin, ezin da bermatu egungo langileek etorkizunean pentsio duina jasotzea".

Pandemia

Koordinakundetik nabarmendu dutenez, "COVID-19 gaitzak zailtzen jarri du gure osasun

KOORDINAKUNDEAN DAUDE: PENSIONISTAK MARTXAN, OTSAILAK 22 PLATAFORMA ETA SASOIA

sistema publikoa. Frogatuta dago aurreko urteetako osasun arloko murrizketak orain ordaintzen ari garela". Horren adibide gisa jarri zuten Lehen Arretako osasun sistemaren egoera "larria". Eta gaztigatu dutenez, pandemiaren ondorioz "kaltetuenak adinekoak gara, ahulena izateagatik". Nabarmendu dutenez, Nafarroan koronabirusak jota hil direnen %80 adinduen egoitzetan hil dira. Horregatik, adinduen egoitzetan dauden pertsonen %80 "errespetua eta egoitza duinak" aldarrikatu dute.

Manifestazioko deitzaileak, bestalde, kexu agertu dira foru administrazioarekin: "Maria Txibite Navascues lehendakariari eta Osasunbideko ardura dunei biltzeko eskatu genien duela sei hilabete eta oraindik ez dugu erantzunik jaso. Errespetu falta da. Errazagoa izan da Euskal Herriko pentsiodunen mugimendua Toledoko Ituneko presidentearekin biltzea hemen goordezkari politikoekin baino".



Ugatza, hegazti harraparia. NAFARROAKO GOBERNUA

Ugatza Aralarren errotu da eta bertan kumatu du

Pirinioetatik hedatzen ari da hegazti harraparia. Dagoeneko Nafarroako bederatzi eskualdetan dago

SAKANA

Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuaren ardura da Nafarroako ugatza berreskuratzeko plana aplikatzea, eta, populazio ugaltzaile horren jarraipena egitea. Departamentuak jakinarazi duenez, ugatza presente dagoen bederatzi eskualdeetatik zazpitan arrautzak errun zituzten eta martxo eta apirila bitartean jaiotako lau kumek, hegan egitea eta habia uztea lortu dute uda akaberan; eta gazteen sakabanaketa hasi da. Ugatzak hartzen dituen bederatzi lurraldeen artean Aralar dago. Teknikarien ustez, datu hori espeziearen lurralde-hedapenaren zantzu bat da.

Ugatzak urtetan bizi daitezke. Bere biziraupena, bere ugaltzea tasa baxua, bizi itxaropen luze batekin konpentsatzean oinarritzen da. Urtero araldia udazkenaren akaberan hasten da, eta, dena ondo garatzen bada, otsailetik apirilera bitartean jaiotako kumeak hurrengo urteko gariletik agorrilera arte ez dute hegan egiten. Habiatik erorikoak eta askotan alferrik galtzen dituzten beste natura arrazoi batzuk gaindituz, hegan egitea lortzen dutenean, txitek habia utzi eta sakabanatzen dira. 7 urterekin ugaltzeko adinera iristen dira eta, normalean, jatorrizko lurraldeetara itzultzen dira hazteko.

Aralarren

Ugatza aurten hazten saiatu den lurraldeetako bat Aralar izan

da, espezie horren hedapen naturalean kolonizatu zen Pirinioez kanpoko lehen lurraldea. Lurralde horren kolonizazioaren historiak lurralde berri baten sorrerak har dezakeen zailtasunaren eta denbora tartearen ideia bat eman dezake, eta, horrekin batera, espezie hori Pirinioetatik kanpo modu naturalean hedatzea.

Kiriku izeneko ugatza 2006an jaio zen, Arbaiunen, eta 2012. aldera Aralarren kokatu zen, helduarora iritsi zenean. 2017an hirukote kooperatibo bat osatu zen beste ar batekin eta eme batekin (Muel), 2016an Aragoi 6 urte zituela markatutakoa. 2019ko denboraldian, emeak lehenengo errunaldia egin zuen, baina inkubazioan porrot egin zuen. Azken denboraldi honetan, kume jaiotzera iritsi zen, baina habiaren erorketa batek, hegan egitea eragotzi zuen.

Nafarroako ugatzaren hirugarren populazioa du Pirinioen hegoaldean, Huesca eta Lleidaren oso atzetik. Hegaztien %6,3 besterik ez badago ere, espezie hori Foru Komunitatean egotea funtsezkotzat jotzen da, korridore naturala baita espeziea Espainiako iparraldeko mendialdeetara hedatzeko, Pirinioak Kantauriar mendilerroarekin eta Iberiar Sistemaren iparraldearekin lotuz.

Pirinioetako bi aldeetako erakundeak Interreg-Poctefa ECOGYP "zerbitzu ekosistemiakoak, harrapari nekrofagoak eta habitatak" proiektua garatu dute 2017. eta 2019. urteen artean.



Arbazarrek eteko atean hizketan udako arratsalde batean. ARTXIBOA

Hurrengorik bada, zuntz optikoarekin harrapatzeko

Kostuaren eta etekinaren arteko aldeak utzi ditu herri asko zuntz optikoko sarerik gabe. Enpresa handiek ez dute errentagarri ikusten herri txikietan inbertsioak egitea, bezero gutxi direlako. Mank-eko batzorde batek Guifinet fundazioarekin proiektua landu du

ARAKIL / IRAÑETA / ARRUAZU

Sakana guztira iristen da Internet sarea. Herri gehienek zuntz optikoko sarea dute. Azkenak Unanu eta Dorrao. Duela bi hilabete Movistarrek jarri zuen. Baina gainontzeko herrietan ez da horrelakorik. Arruazuko alkate eta Sakanako Mankomunitateko Telekomunikazio Batzordeko buru Gorka Ovejero Ganboak azaldu duenez, "gurean Internet kobrezko harrietatik doan ADSL zahar hori dugu herrian. Konfinamenduan ikusi zen zein mugak dituen ADSLak gaur egun. Telanean ari direnendako ez dela batere ona". Egoera berean daude Arakilgo herri gehienak eta Irañeta. Sakanako telekomunikazio sarearen argazkia osatu du Ovejero: "Uharte Arakilgo auzo eta enpresaren bat eta Oltagutiko industrialderen bat daude zuntz optikorekin gabe. Lizarragan, berriz, irrati bidezko Sisnet sistemarekin jasotzen dute Interneta, nahiko abiadura onean".

Alkateak azaldu duenez, "gurea herri txiki eta konpaktua da. Hoditeria sistema prest dugu zuntza sartu eta berehala martxan jartzeko. Eta Movistarrek daromatza hiruzpalau urte esaten: 'berehalaxe jarriko dizuegu'. Horregatik, gure kabuz begiratzen hasi ginen". Zumaiako Albaila kooperatibarekin harremanetan jarri ziren. Xabier Garmendia teknikariarekin Irañetan eta Arruazun zuntza zabaltzeko plangintza prestatu zuten. Udalen sare propioa izanen zen. Gero hura Artxueta errepikagailuarekin irrati bidez konektatzea zen asmoa.

Zergatik irrati bidez? Alkateak azaldu duenez, "Nafarroako Gobernuaren Nasertik enpresa

**AIZKORBETIK
LIZARRAGARAINO
ZUNTZ OPTIKOA
EZARTZEKO
PROIEKTUA EGIN DA**

publikoak Sakanako Autobian (A-10) barna sare indartsua zabalduta du. Baina hara konektatzen denari hilerio 1.400 edo 1.500 euro pagatzea eskatzen dio. Merkatu prezioak dira horiek. 30 erabiltzaile baino gutxiago dituen herri batek ezin du halakorik pagatu. Baina hori eskatu zigiten. Despopulazioaz hitz egiten dute gero. Berdin zaie!"

Proiektua

Kooperatiba Katalunian sortutako Guifinet fundazioaren barruan dago. "Garmendiak haiekin sartzera animatu gintuen". Guifineten aurreproiektua jaso ondoren, Arakilgo, Irañetako eta Arruazuko udal ordezkariak joan den ostegunean bildu ziren. Lizarragako Kontzejuko ordezkariak ezin izan zuten joan. Ovejero jakinarazi duenez, "Aizkorbetik Lizarragaraino zuntz optikoa ezartzeko proiektua ekarri zigiten. Askoz garestiagoa da, baina zuntz bidez jasoko genuke Interneta, ez irrati bidez".

Irrati bidezko loturaren aurrean zuntz optikoko sarea izateak berme gehiago ematen duela gaineratu du: "ekaitza edo erauntsi handi bat badago, ez dago arazorik. Irrati bidez 50 mb datu eraman daiteke da eta zuntzarekin giga bat". Zuntz optikoarekin batera "beste hainbat gauza eraman daitezke. Esaterako, GUAIXE FUNDAZIOAK telebista sortuko balu guk emateko aukera genuke. Zuntz optikoko sarea gurea delako eta ez multinazional batena".

Halako sare bat herrietan jartzeko kostua du. Proiektua finantzatzeko Guifinet fundazioak parte bat pagatuko luke eta toki erakundeek beste bat. Ovejero gaztigatu duenez, "erabiltzaileei diru bat aurreratzeko aukera ematen zaie". Zergatik? Fakturazioan lau gauza ordaindu behar dira: azpiegituraren inbertsioa, Internet nazioarteko sareetara konektatzea, mantentzea eta zerbitzua ematen duen operatzailea. Dirua aurreratzen duen erabiltzaileak fakturako inbertsioaren zati hori ez du sekula pagatuko. Proiektua hastean zehaztuko ditugu kopuruak".

Finantziarioa

Zuntz optikoa, energia berriztagarriak edota mugikortasun arloetan neurriak hartzeko 19.000 euroko dirulaguntza jaso dute Irañetako, Arruazuko eta Ergoienako udalek Nafarroako Gobernutik. Arakilgo Udalak, berriz, 44.000 euro. Heldu den urteko irailera arte dute inbertsioak egiteko. Arakilek, Irañetak eta Arruazuko zuntz optikoko sarea zabaltzea lehentasun hartu dute. Aurreproiektuan jasotako gehieneko inbertsioa 421.000 euro lirateke Aizkorbetik Lizarragara Internet sarea eramatea eta etxeetan sartzeko.

421.000 euro horietatik Guifinet fundazioak 120.000 euro pagatuko lituzke. Aurreikuspenen arabera erabiltzaileek inbertsio gisa 80.000 euro aurreratu lituzkete (gero fakturan kenduko zaie) eta 221.000 euro pagatuko lukete Arakilgo, Irañetako eta Arruazuko udalek eta Lizarragako Kontzejuek. Ovejero azaldu

**"BELDURRA DAGO.
KONFINAMENDU BAT
BALETOR, ITXURAKO
INTERNETA IZAN NAHI
DUGU"**

duenez, "Arruazun uste genuen gure kabuz eginda, irrati bidez, 10.000 euro baino merkeago izanen zela. Elkartea egitea pentsatua genuen eta arbazarrei Internet 10-15 eurotan eskaintzea. Eta Irañetan kalkulatu dute 12.000 euroekin egingen zuela. Orain esaten ari gara 221.000 euro, baina zuntz optiko bidez".

Beste aukera bat badagoela aipatu du Arruazuko alkateak: "Aizkorbetera joateko Irurtzundik pasatzen zara. Arruazutik Lizarragara joateko, ardatza izanen litzatekeen zuntz kable hori Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranzatik pasako litzateke. Horrek aukera emanen liguke udal horiek erakartzeko". Herri handi horietan multinazionalak zuntz optikoko sarea zabalduta dute eta zerbitzu ona ematen dute. Ovejero azaldu duenez, "kablea udalordek ordaintzen badute beraien, Guifinetena eta erabiltzaileena litzateke. Bestetik, parte diren udalek ez lukete Internetik pagatuko, edo oso-oso gutxi. Etxarri Aranzako Udalaren adibidea: udaletxea, liburutegia, kultur etxea eta eskola pagatzen ditu".

Herri handi horietako biztanleek telekomunikazio arloan beste aukera bat izanen luketela ere nabarmendu du Ovejero: "Internet konexioa ona lukete, erabiltzen ez dituzten beste gauzengatik, paketeengatik pagatu gabe. Kontsumitzaileak berak erabakiko du Interneteko zer eskaintza hartu: futbola, telesailak... "Merkeagoa izatea nahi lukete". "Udal horiek sartuko balira guri aurrekontuaren kostua murriztuko ligukete".

Batzordea

Mank-en Telekomunikazio Batzordeak, gehienbat, zuntz optikoa ez duten herrietan sare hori zabaltzea du helburu. "Zuntza nahi duten herriak gaude, batez ere. Beldurra dago. Konfinamendu bat baletor, itxurako Interneta izan nahi dugu". Arruazuko alkateak haien egitasmoaren berri Irurtzungo, Uharte Arakilgo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranzako udalei jakinaraziko die. Denen artean Sakanan irabazi asmorik gabeko operadorea sortzeko aukera ere mahai ganean jarri daitekeela esan du Ovejero, "zerbitzua oso-oso merke emanen luke".

Software eta programa libreak sustatzea ez da baztertzen, udalek lizentziengatik ez pagatzeko.



Asteartean hilerrian egon ziren filmatzen. Kanpoko aldean figuranteak zain egon ziren.

Altsasuko auziko telesaila grabatzen hasita

Altsasuko auziari buruzko telesaila grabatzen ari da Baleuko ekoiztetxea ETBrendako eta TV3endako. Beraz, Kataluniako telebistan ere emanen dute telesaila

ALTSASU

Euskaraz eta ETB1n. Fikziozko edukiak gure hizkuntzan ikusteko eskaerak gero eta oihartzun handiago hartu du. Urte bukaerara arte ETB1n hiru telesail ikusteko aukera izanen da: Koldo Almandozek zuzendutakoa eta Hondarribiko alardeari eta Altsasuko auziari buruzkoak. Lau ataletako telesailak dira.

Guztira 12 ordu. Altsasuko auziari buruzko telesailaren zuzendaria da Asier Urbietak San Martin. Esan duenez, "Esker-tzekoa da fikzioa euskaraz egiteko egiten ari diren ahalegin hori". Gaineratu duenez, Hondarribikoaren eta Altsasukoaren kasuetan ETBk "aktualitateari lotutako gaiak aukeratu ditu telesailak egiteko.

Urbietak aitortu duenez, "lau urtetan gertatu dena lau kapitulu-tan laburbiltzea, erronka handia da. Gainera, benetako historia denez, gertatutakoarekin ardura handia dugu". Horregatik, egin zuten aurreneko gauza "ahalik eta dokumentazio lanik sakonena" egitea izan zen. "Gero erronka izan da hori guztia laburbiltzea hain denbora gutxian". Urbietak azaldu duenez, telesailari "pertsonaien emozioetatik helduko" diote. Gaineratu duenez, "argi dago hau injustizia handi bat izan dela. Gu gehien bat pertsonetan oinarritzen gara. Nola bizi izan duten beraiek auzi hau; zer sentitu izan duten. Iruditzen zaigu garrantzitsua dela berriro gerta ez dadin".

Zuzendariak azaldu duenez, protagonistekin harremanak izan dituzte. "Proiektua eskatu zigutenean, lehenengo ahalik eta gehien dokumentatu ginen. Eta hortik aurrera, gazteekin elkar-riketatu ginen". Ez guztiakin, garai hartan Adur, Oihan, Jokin, Jonan eta Julen kartzelan zudelako. "Kasu horietan haien gurasoekin hitz egin genuen. Gero izan dugu aukera Adur, Oihan eta Jokinekin hitz egiteko; baina Jonanekin eta Julenekin ez". Haiekin eta gurasoekin izandako elkarrizketak hartu dituzte oinarri gisa.

Erronkak

Altsasuko auziak aurki lau urte beteko ditu. Baina telesailak aurreneko biak besterik ez ditu jasoko. "2018ko epaiketarekin bukatzen da. Beraz, telesailak ez du akabera zoriontsurik izanen, zigortu egin zituzten eta bukaera ez da oso zoriontsua".

Urbietak azaldu duenez, "oso telesail konplexua da pertsonaia asko dituelako. Gazteak dira protagonistak. Gurasoak ere badaude. Herria ere badago, guardia zibila, Espainiako boterea, epaileak, abokatuak... Eta figurazio aldetik masiboa da, herriaren erantzuna oso handia izan zelako. Kaleak betetzeko jende asko behar dugu". Gaineratu duenez, "oso konplexua da kontatu duguna". Oبرا koral horretan hainbat aktorek parte hartuko dute. Zuzendariak ez digu izenik eman nahi izan eta horren ordez jolasa proposatu du: aktoreak herrian ikustean pentsa dezatela zein pertsonaia jokatu dezakeen.

Grabazioa astelehenean hasi zen eta lastailaren 23an despedituko da. Gure etxea eraikina, gimnasioa, hilerria, pisu bat... Lantaldeak lokalizazio horietan grabatu du aste honetan. Bost astetan ariko dira grabatzen eta telesail gehiena Altsasun bertan grabatuko dute. "Garrantzitsua iruditzen zaigu lokalizazio erre-ak izatea". Altsasuko auziko gertaerak eguneko edozein ordu-tan izan ziren eta horrek grabazioari ere konplexutasuna gehitu diola esan du zuzendariak: "gau eta egunsenti asko dauzkagu, ilunabarrak... Gure lan ordutegia ez da 8 ordutakoa izanen. Nahiko eroak dira gureak".

COVID-19 garaian grabatzea ere erronka izan den dela aipatuta, zuzendariak esan duenez, "horrekin ahaztuta nago. Hainbeste erronka ditugu! COVIDa ekuazioan sartzen badugu, agian ez nuke lorik egiten". Osasun agintariak emandako neurriak beteko dituzte grabazioak irauten duen bitartean, "eta espero dezagun inolako konplikaziorik ez izatea".

Lantaldeak grabatzeko denbora gutxi izanen du. Baina irudiak muntatzeko ere "apenas izanen dugu denbora". Urbietak jakinarazi digunez, ETB1ek aurten eman nahi du. Abenduaren 7an mustuko litzateke telesaila. Eta hurrengo hiru astelehenetan emanen lirake beste 3 atalak.

Presoen komunikazioetan murrizketak

Etxarri Aranazko Etxerat-ek jakinarazi duenez, Luis Mariñelarena Goñi martxotik dago bisean biseko bisitarik gabe eta Carlos Apeztegia Jaka irailaz geroztik. Asier Carrera Arenzana dagoen kartzelan familia bisean biseko bisitetara bi pertsona sartzeko baimena ematen zuten eta Carrerak bikotea eta bi haur ditue-nez hiru sartzera eskatu zuen. Eskaera onartzearekin batera, familiako bisean bisekoak kendu eta soilik intimoak ditu orain. Beraz, ez ditu haurrak ikusiko. Juan Ramon Karasatorre Aldaz bisean biseko bisitaren ondoren espetxean hamar eguneko berrogeialdia pasa behar du eta, ondorioz, mintzatokiko bisita bat galtzen du. Unai Parot Navarrok familia eta intimoak diren bisean bisekoak ditu. Azkenik, Jon Gurutz Maiza Artola eta Oihan Barandalla Goñi dauden kartzelan 6 mintzatoki itxi dituzte eta, ondorioz, bisitak hartzeko euskal presoak txandakatu egiten dira. Hilean 4 bisitatik 3ra pasa dira.

Altsasuko auziko bi presoak baimenarekin kalean

Altsasuko auziagatik preso dagoen Jonan baimenarekin ateratzen kartzelatik eta Julenek ere aste honetan gauza bera egiten du. COVID-19 gaitzak sortutako pandemiagatik, baimenarekin ateratzen diren presoak kartzelara bueltatzerakoan isolamenduko moduluan 10 eguneko berrogeialdia pasa behar dute. Akaberran gaitza duen proba egiten diete eta negatiboa ematen badute beraien ohiko modulura eramaten dituzte. Hori jakinik, Jonan eta Julen ahalik eta irteera baimen gehien pilatzen saiatzen ari dira irteera bakoitzean. Baina halako baimenak izateak presoendako ere lotura bat badakar: bitan joan behar dute poliziarengana eta beste behin kartzelara aurkeztu beharra dute.

Bestalde, hilaren 12an Zaballako kartzelako 4. moduluan preso batek bere buruaz beste egin zuen. Modulu horretan daude preso Jonan eta Julen. Altsasu Gurasoak-en ustez "kartzelatan baliabide gehiago behar dira".

DUELA 25 URTE...



Orritz Alemanian

Irurtzungo Orritz dantza taldea Alemanian izan zen irailaren 21etik 28ra. Orritzeko kideek talde gisa estatutik kanpo egindako aurreneko bidaia izan zen. Hiru hiritan emanaldi bana eskaini zuten. Garagardo festa ospatzen zela eta Irurtzungo korrespondentelak taldekideak haien aparretan ez itotzea espero zuen. Bestalde, Altsasuko Aitzindari dantza taldea garilean Cantonigrosko nazioarteko jaialdian (Bartzelona) izan zen, eta agorriean Festa Carballeiran, Zasen (A Coruña) eta Guitirizen (Lugo).



**KIROLA, ARDURAZ
KIROLA, SEGURTASUNEZ**

**#GAUR
BAI**

**KIROLA, GAUR BAI
OSASUNA, GAUR BAI**



Instituto Navarro del Deporte
Nafarroako Kirolaren Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



Dantzaleku igerilekuak. ARTXIBOA

Udalak 282.757,53 euroko lanak eman ditu

Bost kale konponduko ditu, kanposantuko zati bateko kaleak eta Dantzalekuko igerilekuko arazoekin bukatzeko lanak eman ditu. Gainera, Alde Zaharrean LED argiak zeinek jarri ere badu udalak

ALTSASU

Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak hainbat erabaki hartu zituen astelehenean egindako bilkuran. Horien artean dago Construciones Beroste SA enpresari herriko hainbat kale-tan konponketa lanak egiteko kontratua ematea. 84.125,06 euroren truke (BEZ kanpo) konponduko dituen kaleak dira: Nafarroa kalea (Burunda eta Gipuzkoa kaleen artean); Sorringainbera kaleko (Zubeltzu aldapa) porlanezko zoruaren ordeztasun jarriko da ibilgailuak irristatu egiten direlako eta kexa asko jaso duelako udalak, gainera, kale bereko espaloia konpontzea; Kale Txikin, Altzania

kaleko bidegurutzearen ondoan, oinezkoendako zebrabide goratua jarriko da; Erburua kalearen Zelaiko bidegurutzetik beilatoki pareraino konponduko da eta Altzania kalean dagoen autoen aparkalekua egokitzea baterian aparkatu ahal izateko.

Enpresa berak 35.388,64 euroren truke (BEZ kanpo) eskuratu du hilerrian egin beharreko lanak. Zehazki panteoi zaharrenak dauden tokiko kaleak berritzea. Dantzalekuko igerilekuan dauden arazoak konpontzeaz arduratuko den enpresa Pool Time SLU da eta lan horrengatik 118.643,97 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu. Besteak beste, igerileku nagusi-ura eramaten duen kanaliza-

zioak ur ihesak dituela uste dute udal teknikariek. Asmoa da igerilekuko lanak heldu den udarako erabilgarri egotea. Azkenik, Telman SL enpresaren esku gelditu da Alde Zaharreko argiteria berritzeko kontratua. LED argiak jarriko dituzte 44.599,86 euroren-gatik (BEZ kanpo).

Bestalde, Altsasuko Udalak bi dirulaguntza jaso ditu. Nekazaritza azpiegiturak sortu eta hobetzeko 36.730,17 euro. Horrekin eta udalak jartzen duenarekin Zezenagako itxitura egingen da eta Otadiko bidea asfaltatuko da. Horrekin batera, Altsasuko Elkarbizitza Planerako diagnostia egiteko udalak 8.000 euro jaso ditu.



Akerruntza kalea Kattuka paretik. ARTXIBOA

Udalak urbanizatutako bederatziz lursail salduko ditu

Enkanteko hasierako prezioan salduz gero, udalak 325.918 euro eskuratuko lituzke

ARBIZU

Arbizuko Udalak, plegu itxiko enkante bidez, bereak diren eta herrigunean dauden bederatziz partzela salduko ditu. Enkante-rako proposamenak aurkezteko epea lastailaren 12an despedituko da. Bi partzela elkarrekin

salduko ditu eta gainontzekoak banaka. Batean bi etxebizitza egin daitezke eta gainontzekoetan bakarra. Salmentarako baldintzetan, besteak beste, jaso da, lursaila erosten duenak pagatu beharko dituela sortzen diren zerga guztiak.

Arbizuko Udalaren lursail salmenta

Kalea	Azalera eraikigarria m ²	Hasierako prezioa
San Joan bidea 8-10	220	29.241
San Joan bidea 12	220	29.241
San Joan bidea 14	220	29.241
San Joan bidea 16	220	29.241
San Joan bidea 18	220	29.241
Iruñeko etorbidea 38	326,75	45.073
Arnatz kalea 19	220	56.235
Akerruntza kalea 21	577,1	78.405

Hondakin bilketarako kamioi berria eskuratu du Mank-ek

Ibilgailu berria atzo jaso zuen. Inbertsio handiak egin ditu azkenaldian Hondakin Bilketa Zerbitzuan

SAKANA

Azaroan kamioi bat jaso zuen Sakanako Mankomunitateak eta atzo beste bat. Giltzak batera, Mank-eko gidariek Iveco eta Ros Roca enpresen prestakuntza jaso zuten. Kamioiarekin probak egi-

nen dituzte edukiontzia modu egokian hartzen eta igotzen dituela ziurtatzeko eta horiek gainditu ondoren, heldu den astean, lanean hasiko da.

Erosketagatik Mank-ek 135.000 euro pagatu ditu (BEZ kanpo).

Guztia Mank-ek ordaindu du, dirulaguntzarik gabe. Miren Ortiz Olabe idazkariak azaldu duenez, "horrek ekonomia ahalgin handia eskatzen du. Urte bakarrean bi kamioi ekarri ditugu". Flota berritzeko asmoa dute, baina erosketa egutegia oraindik ez dago zehaztuta. Hondakin Bilketa Zerbitzuan dauden ibilgailuak berritzeko beste pauso bat eman du ibarreko erakundeak. Sakanan hondakinen gaitako bilketa egiteko 11 ibilgailu ditu Mank-ek.



Aurki Sakanan barna ibiliko den kamioi berria. UTZITAKOIA

Udalek gobernuaren 772.657,02 euro jasoko dituzte

Lurralde Kohesiorako Departamentuak 13,5 milioi euro ordaindu dizkie udalei aste honetan. Kopuru horren %5,72, 772.657,02 euro, Sakanako udalek jaso dute. Diru horrekin toki entitateek COVID-19ren eraginari aurre egiteko ekonomia suspertzeko neurriak hartzeko aukera izanen dute. Besteak beste finantzagarriak diren jarduerak dira energia eraginkortasunarekin, hiri-mugikortasun-jasangarriarekin, udal eraikinen egokitzapenarekin, banda zabaleko konektibitatearekin eta uraren erabilera-eraginkortasunarekin lotuta egiten dituzten inbertsioak. Heldu den urteko irailaren 30era arte egin ditzakete inbertsioak.



Palaz areto futboleko harmailak bota zituzten, berriak jaso ahal izateko.

Aurtengoak "trantsizioko aurrekontuak" dira

Udalean dagoeneko heldu den urtekoak prestatzen ari dira. Areto futboleko pistako harmaila eta dermioko bideak konpontzea jaso da aurrekontuan. Baita kiroldegian eguzki plakak jartzea ere

OLATZAGUTIA

Olatzagutiko Udalak aurtengo aurrekontuan 1.971.188,72 euroko sarrerak eta 1.967.608,72 gastuak aurreikusi ditu. Aurrekontu orokor horren barruan daude udalaren 1.887.250,50 euroko diru sarrera eta gastu aurreikuspena, Musika Eskolako Udal Patronatua: 45.138,22 euroko diru sarrera eta gastu aurreikuspena eta Erburua Olazti SL enpresako 167.545,44 euroko diru sarrerak eta 163.965,44 euroko gastuak. EH Bilduren aldeko botoekin eta PSNren abstentzioarekin onartu ziren aurrekontuak. Navarra Sumako zinegotzia ez zen aurrekontuak onartu ziren bilkuran izan.

Roberto Martinez Mendia alkateak azaldu digunez, "COVID-19 gaitzak guztia 'nahasi' du eta aurtengoak trantsizioko aurrekontuak dira. Dagoeneko heldu den urteko aurrekontuetan lanean ari gara". Hala ere, aurrekontuan hainbat lan jaso dira. Esaterako, areto futboleko pistako harmaila berritzea. Lakuntza Hermanos enpresa ari da lan horretan eta 80.000 euro inguru kobratuko du horiengatik. "Eskolako beste bi lan egiteko dirulaguntza ere eskatu genuen, baina ez dugu jaso. Heldu den urtean, atzera ere, eskaera egingen dugu". Batetik, geletako berogailuak erregulatzeke tresnak jarri nahi dituzte: "termostato bat dugu, baina gela

batzuetan bero handia egiten du eta negu gorrian leihoak zabalik egon behar izaten dute". Energia aurrezteko da eskolan egin nahi den beste inbertsioa ere: "sentsoreak jarri nahi ditugu mugimenduarekin argia piztu eta itzali ahal izateko".

Inbertsioen atalean, Erburua kiroldegian eguzki plakak jartzea aurreikusi du udalak. 33.275,91 euroko inbertsioa litzateke, baina hari aurre egiteko dirulaguntza eskatu du udalak.

Dirulaguntzarekin konponduko ditu, bestalde, dermioko bideak. Lakita enpresak hartu du horren ardura. 95.000 euro inguru bideratuko ditu udalak lan horietara. Gainera, heldu den

urtean bargatik bi lantegi atarako dira. Enborrak kamioietan egoki kargatzeko bi karga leku egin dira errepidearen kontra, bata Ezkinarbin eta, bestea, Soraberritan. Biak ere Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin egin dira. Udalak aurtun langabezian zeuden hiru pertsona kontratatuko ditu. Udalarendako lanean urte erdi egonen dira.

Etxebizitzak

Martinezek jakinarazi duenez, Nasuvinsa enpresa publikokoe-kin elkartu ziren agorrilean. "gizarte alokairuko pisuak egiteko aukerak aztertzen eta lantzen hasi gara haiekin batera". Bestalde, Olatzagutiko Udalak aurtun ez du parte hartze aurrekontuetarako diru sailik aurreikusi. "COVID-19 izan da horren arrazoia. Baina heldu den urtekoetan sartuko dugu", argitu digu Martinezek. Joan den urtekoan 30.000 euro aurreikusi ziren Vicente Argomaniz plaza eraberritzeko. Proiektua egiteko dago oraindik. Azkenik, udalean aztertzen ari dira despopulazioaren kontrako neurriak hartzeko Nafarroako Gobernuak emandako 16.518 euroak zertara bideratu.

Araztegia

Nafarroako Gobernuaren Nilsa enpresa publikoaren bidez Olatzagutiko ur beltzen araztegia guztiz berrituko da. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak ebatzi du Olatzagutiko proiektua gauzatzeko ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presazkoa dela, eta hala deklaratu du, nahitaez desjabetzeko. Horren berri gobernuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zuen asteartean eta ordutik erabakia indarrean dago.

Ekonomia suspertzeko

Herria	Kopurua
Altsasu	155.000
Arakil	44.288
Arbizu	65.000
Arruazu	19.000
Bakaiku	19.000
Ergoiena	21.037
Etxarri Aranatz	95.804
Irañeta	19.000
Irurtzun	86.528
Iturmendi	19.000
Lakuntza	65.000
Olatzagutia	65.000
Uharteko Arakil	40.000
Urdiain	40.000
Ziordia	19.000
Sakana	772.657

C.A. OSASUNA
VS
LEVANTE U.D.

IRAILAK 27, IGANDEA
12:00-14:00
(IRRATIKO KONEXIOA 11:45EAN)



EUSKALERRIA
IRRATIAREN BIDEZ

euskalerrriairratia^{plus}

107.3 FM
beleixe

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta
bigarren eskukoak
SALMENTA

Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 25

LAKUNTZA Tokiko nekazal barietateak: Haziak biderkatzeko eta gordetzeko tailerra.

Izena ematea: info@lakuntza.eus edo 650 866 423.

17:00etan, frontoian.

ALTSASU Azken ostirala. Altsasuko Sareren Euskal Presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea.

19:00etan, udaletxearen parean.

ALTSASU Euskaraldia, zer egin kuadrillean?
19:00etatik 19:30era, Iortia kultur gunean.

SAKANA Azken ostirala. Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranatz. Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzeak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske elkarretaratzea.
20:00etan, udaletxearen parean.

LARUNBATA 26

ALTSASU Oraingo eta etorkizuneko pentsiodunak defenda ditzagun.
Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinakundearen manifestazioa.
19:00etan, Foru plazan.

LAKUNTZA Lasa eta Zabala filmaren proiektzioa.
Antolatzailea: LAGA.
18:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 27

ALTSASU Atxergo gaztelura irteera eginen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.
Antolatzailea: Joxemi.
6:00etan, egoitzatik.

ALTSASU Marutegiko gaztelura 40 km-ko ibilbidea eginen du Barranka BTT taldeak.
09:00etan, Zumalakarregi plazan.

UHARTE ARAKIL Adamo Nafarroako minbizia duten haurrendako laguntza elkartearen aldeko zumbatoia.
Sarrerak: Parte hartzaileek 5 euro eta ikusleek 2 euro.
11:00etan, pilotalekuan.

ETXARRI ARANATZ Gudari eguna.
Antolatzailea: Gudarien aldeko herri mugimendua.
12:00etan, plazan.



IKER URIBE

IRURTZUN Dorisen marrazkiak.
Irailean eta urrian. Pikuxar euskal txokoan.



YOLANDA ARNEADO

ALTSASU Yolanda Arnedoren tailerraren erakusketa. Irailaren 18tik urriaren 2ra.
Iortia kultur guneko erakusketa gelan.

ETXARRI ARANATZ DNA20. Led Silhouette konpainaren Concavo Convexo dantza ikuskizuna.
19:00etan, plazan.

ALTSASU Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 28

ALTSASU Pentsio duinen alde.
Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinakundearen kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEAZKENA 30

ALTSASU COVID-19 eta azken gertakariak.
Altsasuko EH Bilduk deitutako batzarra.
19:00etan, Iortia kultur guneko areto txikian.

OSTEGUNA 1

LAKUNTZA Kattalingunea bulegoa.
Harremanetarako: Goretti Etxepare Alberro sexologoa: 948 229 149 eta 678 266 865 telefonoak eta iparmendebaldea@kattalingune.org eposta.
11:00etatik 19:00etara, udaletxean

ALTSASU Ozenki irakurtzeko kluba.
12:30ean, Iortia kultur gunean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEA

Padre no hay más que uno 2
Ostirala 25: 22:00
Igandea 27: 19:30

Un amigo extraordinario
Osteguna 1: 19:00

Las niñas zineforuma
Osteguna 1: 19:00

BAZKIDE ZOZKETA

SARIDUNAK:

1. JAVIER ZELAIA ETXARRI (Urdiain)
2. JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON (Etxarri Aranatz)
3. SILVIA NUÑEZ PEREZ (Altsasu)
4. OIHANA RUIZ GOLDARAZENA (Lizarraga)

URRIKO SARIAK

1. SARIA:

EKAIBERRIKO KOBAZULOAK: 2 sarrera

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua

LACTURALE: Esneki lotea

GAZTEZULO: 3 hilbaetaz doan

EREIN: Argitaletxearen liburu bat

2., 3. ETA 4. SARIAK:

DOÑOSTIAKO AQUARIUMA: 2 sarrera

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua

LACTURALE: Esneki lotea

EREIN: Argitaletxearen liburu bana



Ekain berri

CAMPING ARTAZA

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



Dorita
Ansotegi Lizarraga

"Bihotz beroa, atsegina, su eder bat bezalakoa neguko gau hotzean"

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Zure lagunak
Etxarri Aranatz

ESKELA



Dori
Ansotegi Lizarraga

"Andra! Zu zera bukatzen ez den sua"



Sortu Etxarri

ESKELA



Dori

"Ordaguat bota zunan gaixotasun madarikatu harrek handita, txikita eta pareta eutsi yon; jokura, berriz, harrek yaman hau.
Agur eta ohore, Dori!"

xapatero
taberna

IRAGARKI SAILKATUAK

LAN ESKAINTZA

Cedema Garalur Elkar-teak energia berrizta-garrien sustapenean ezagutzak dituen pertsona bat kontratatu nahi du: 8 hilabetetarako kontratua, lanaldi osoan. Interesatuek CVA bidal ditzakete, titulazioen kopia konpultsatuekin batera, info@cederna.es helbidera. Epea urriaren 6an, 14:00etan, amaitzen da.

IKASTAROAK

Irurtzungo ikastaro eskaintza: Antzerki tailerra (asteazkenak 17:00-19:30), Irakurketa taldea (hileko 1. go osteg. 18:00-19:30), Marraketa (Astelehena 16:00-19:00), Mantentze gimnasia (astearteak-ostegunak 16:30-17:20), Hipopresiboak (astearteak-ostegunak 17:30-18:20), Pilates (astearteak-ostegunak 18:30-19:20/19:30-20:20), Zumba (astelehenak-asteazkenak 19:00-19:50), Bizkortzea / GAP (astearteak-ostegunak 18:30-19:20), Kirol entrenamendua (astearteak-ostegunak 19:30-20:20), Gorputz jarrera (astelehenak 17:00-19:00), Spining (astean bi egun/maila eta ordutegi ezberdinak). Izena emateko epea irailaren 28an amaitzen da. Informazio gehiago Kultur etxean (948 600 412 - kulturetxea@irurtzun.eus).

Landareei buruzko ikastaroa irailaren 28rako eta 30erako Gorosti elkar-teak antolatuta: "herritarren zientzia" deritzana bultzatu nahian.

Saioak praktikoak izanen dira, aire zabalean, Etxarri eta Lakuntzan, 17:00etatik 20:00etara, dohainik, eta gehienezko pertsona kopurua egongo denez, aurretik izena eman behar da: 630 591 703 telefonoan edo frebakaikoa@gmail.com e-postan.

Arakilgo ikastaro eskaintza: Yoga (astelehenetan eta ostegunetan 9:30-11:00 edo/eta 18:30-20:00), Soinketa (astearteetan eta ostegunetan 18:00 - 19:00), Zinemaren hastapenak (Astearteetan 18:30-20:30), Eskulanak (Astelehenetan 10:30-12:30), Argazkilaritza eta Astelehen zoriotsuak. Irizpideak (www.arakil.net web orrian) eta segurtasun protokoloa onartzea derrigorrezkoa izanen da. Izen ematea irailaren 29a baino lehen Udaletxean (948 500 101) edo WhatsAppez (634 584 226).

LEHIAKETA

Gazteentzako zientzia eta teknoko bideo lehiaketa Elhuyarrek antolatuta: 12-18 urteko gazteei zuzendua eta bakarka edo taldeka (4 gehienez) parte hartu daiteke. Saria Futuroscope parkerako 2 eguneko bidaia. Parte hartzeko baldintzak eta informazioa www.zientzia-azoka.elhuyar.eus weborrian. Izena emateko epea urriaren 30ean amaitzen da.

OHARRAK

Jubiloteka Arbizun: Zerbitzua urriaren 6an

hasiko da, astearte eta ostegunetan 16:30etik 18:30era. Parte hartu nahi baduzu info@arbizu.eus helbidera idatzi edo 948 460 017 tfnora deitu irailaren 30a baino lehen.

Arbizuko Gazte txokoa 2020/21 ikasturtean: Urritik maiatzera bitartean, 11-14 urte bitarteko gazteei zuzendua, begiraleen ardurapean. Urte osoko kuota 10 euro seme-alaba batentzat, 12 euro birentzat eta 14 euro hirurentzat izanen dira. Izena emateko epea irailaren 25ean amaitzen da udal txean, 948 460 017 tfnoan edo info@arbizu.eus helbidera idatziz.

Nekazaritzako Ibilgai-luen Azterketa Teknikoa Egutegia: Irailak 25, Altsasu; irailak 28, Olatzagitia eta irailak, 29 Ziordia.

Intxostiapuntako ordutegiak: Gaztegunea astelehenetik ostegunera, igande eta jaiegunetan 17:00etatik - 21:00etara, ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 22:00etara, ekintza berezietan 17:00etatik 01:00etara. Informazio gunea astelehenetik ostiralera 7:30tik 15:00etara eta asteazkenetan 7:30tik - 12:00etara eta 17:00etatik - 20:00etara. Tfnoak 948 564 785 / 608 617 778, intxostiapunta@altsasu.net + gazteria@altsasu.net. www.iragarkilaburak.eus

ESKELA

Dori
Ansotegi Lizarraga

Beti hor sentittu eta izan zaitugu Eskerrik asko, Dorita



Arbizuko ekokanpina

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

EZKONTZAK

- **Jesus Maria Bengoetxea Azpiroz eta Maite Balda Ciraco**, irailaren 12an Iturmendin
- **Elixabet Astitz Soto eta Jose Miguel Baraibar Telletxea**, irailaren 19an Uharte Arakilen

HERIOTZAK

- **Pedro Lizarraga Lanz**, irailaren 19an Altsasun
- **Juan Francisco Cuesta Bello**, irailaren 23an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELA



Francisco
Cuesta Bello
(Zinegotzi ohia)

Mila esker Lakuntzako herriari emandako guztiagatik



LAKUNTZAKO UDALA



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Ongay, Bergera eta Retegi Bi, txapelkunordeen dominekin. UTZITAKOA

Irurtzun, Espainiako Kluben Arteko txapelkunordea

PILOTA Buruz Buruko finala Uharte Iruñearen kontra galdu zuen eta Binakakoa Najerinoren kontra

Asteburuan Espainiako Kluben Arteko Pilota Txapelketako Oho-rezko Mailako azken fasea jokatu zen Iruñean. Irurtzun Pilota Elkartek bi modalitateetan hartu zuen parte: Buruz Burukoan eta Binakakoan.

Buruz Burukoan, ostiralean jokatutako finalerdietan Retegi Bik (Irurtzun) 2 joko eta 0 irabazi zion Burgosko San Cristobal taldeko Arrietari (10-2 eta 10-0); ez zion aukerarik ere eman. Final handian Retegi Bik Espinal (Uharte Iruñea) izan zuen aurkari. Final oso estua izan zen, lehen jokoa Espinalak irabazi baitzuen (10 eta 7), eta bigarrena, aldiz, Retegi Bik (6 eta 10). Berdinketa hausteko joko lehiatu eta borrokatuan tanto eskas bategatik, 5 eta 4, ihes egin zion txapelak Retegi Biri.

Binakako Txapelketan antzekoa gertatu zen. Finalerdietan Ongayk eta Bergerak ordezkatu zuten

Irurtzun, Uharte Iruñeko Yoldiren eta Beroizen kontra aritzeko. Finalerdi oso borrokatua izan zen, gogorra. Berdinketa apurtzeko azken jokoa Ongayk eta Bergerak 5 eta 2 irabazi zuten eta finalera sailkatu ziren.

Finalerdiko karga nabaritu zen Final handian, Ongayk eta Bergerak Najerino taldeko Prado eta Merino izan zituzten aurkari. Lehen jokoa, biko errioxarra izan zen jaun eta jabe. Bigarrenean, egoerari buelta ematekotan egon ziren sakandarrak, baina 10 eta 9 galdu zuten eta, hortaz, Najerino lortu zuen Espainiako Kluben Arteko Binakako Txapelketa irabaztea, bi joko irabazi eta gero. "Ongayk eta Bergerak ostiraleko finalerdiaren nekea nabaritu zuten finalean; ostiralekoa oso gogorra izan zen" aipatu du Irurtzun klubeko presidente Miguel Berazak.

Masterseko 2. finalerdia jokatuko du gaur Zabaletak

PILOTA Olaizolak eta Zabaletak Altuna eta Imaz dituzte aurkari gaur, ostirala, Logroñon

Masters CaixaBank Torneoako 2. finalerdia jokatuko dute gaur Olaizolak eta Zabaletak Altunaren eta Imazen kontra, Adarragan (19:15). Irabazleek Artola eta Rezusta izango dituzte zain igandean Bilbon jokatuko den finalean.

Bakaikoa ikusteko sarrerak salgai Etxarrin Urriaren 2an Buruz Buruko aurre kanporaketa jokatuko du Joanes Bakaikoak Arteaga II. ren kontra Etxarrin. Sarrerak salgai daude udaletxean (15 euro).

"Jendearen estimua sentitzen dut; horrek betetzen nau"

IMANOL ERBITI MOVISTAR TEAM TALDEKO TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Imanol Erbiti pozik itzuli da Tourretik, taldeak egindako lanarekin kontentua. Atsedena hartu ondoren, hurrengo helburua prestatuko du, Vuelta

Maidar Betelu Ganboa HIRIBERI Zorionak Imanol! A ze Tourra egin duzun zuk eta zure taldeak, Movistar Team-ek.

Eskerrik asko. Egoera dela eta, taldeko aldaketak zirela, ezjakintasun handia zegoen, baina azkenean Tour polita atera da. **Larunbateko erlojupekoan gertatu zena espero zenuten? Roglic eta Pogacar eslobeniarren lehia ikusgarria izan da, baina Pogacarrek erlojupekoan lortutakoa, ia sinestezina. Sekulako fenomeno da...** Erlojupekoa estu zegoen; dena den, ez zirudien gertatu zena gertatuko zenik. Baina kirolean batzuetan sorpresak gertatzen dira. Nolanahi ere, Pogacarrek egindakoa, erlojupekoan Roglic halako alde ateratzea eta Tourra irabaztea, txiribuelta oso handia izan zen. Hemendik urte askora gogoratuko da, 1989an Lemondek Fignoni 8 segundoren aldearekin Tourra erlojupekoan irabazi zio- la oraindik gogoratzen den bezala. Eta bai, Pogacar fenomeno hutsa da. Horren gaztea izateko halako maila izatea, eta munduko lasterketarik gogorrena hala errematatzea... Uste dut txapelkun handi bat izango dela; hori argi ikusi genuen aurreko urteko Vueltan 3. sailkatu zenean.

Jose Luis Arrietak esan zuen aurtengo helburuak bestelakoak zirela: Enric Mas lider gazteari ardura ematea, esperientzia har zezan, eta ahal izanez gero Top-Tenean sailkatzea. Helburuak gaindituta itzuli

zarete, Enric Mas 5. postuan sailkatu delako eta Movistar Tourreko talderik onena izan delako.

Oso pozik gaude; urte hau aldaketa handien urtea zen guretako: lider berriak, gazteak, beste helburu batzuk..., eta hortaz, ez genekien, zehazki, non kokatu behar ginen. Bestetik, Tourra baino lehen jokatutako lasterketak ez zitzaizkigun oso ongi at- era, eta zaila egiten zitzaigun Tourrerako helburu argi batzuk zehaztea ere. Baina lan eginez, arriskuak eta arazoak gainditzen joan ginen eta, azkenean, Tou-

reko saltsan murgildu ginen. Tourra oso emankorra izan da taldearendako, baita Enric Masendako ere, berak konfiantza hartzeko eta lasterketaren alderdi guztietan trebatzeko, baita lasterketan aritzeko mekanismoei dagokienean ere. Izan ere, aurtun ezin izan dugu lasterketa askotan aritu, eta mekanismo horiek ez genituen behar bezala automatizatuak. Horretarako oso ongi etorri zaigu Tour hau. Urte berezi honetan guztia behar bezala lotu eta kateatu dela ikustea pozgarria da.



Imanol Erbiti, Tourra baino lehen egindako kontzentrazio batean. MOVISTAR TEAM

Urtea lesionatuta hasi zenuen. Arrietaren esanetan "urte honetako zorigaitzen kopurua" bete zenuen. Bai (kar, kar...). Urte hasieran lesio bat izan nuen, osatzen ari nintzanean konfinamendua iritsi zen... Batzuetan horrela sentitzen zarenean, zalantzati, horrek gehiago ematera bulkatzen zaitu, ezta? **COVID-19 birusari aurre egiteko burbuila batean sartuta egon zarete, Tourretik kanpoko jendearekin eta zuen senitartekoekin ere harreman zuzenik izan gabe. Oso gogorra izango da hori, ezta?**

Bai. Duela 3 hilabetetik egun gutxi eman ditugu etxean, 10 egun inguru, eta egun solteak. Pentsa, azken sei astetan etxetik kanpo egon gara, Tourraren aurretik kontzentrazio bat egin baikenuen. Estres handiagoko urtea izan da hau. Seme-alabek esan zidaten Parisen hegazkina ez galtzeko inola ere...

Espainiako Vueltan aritzekoa zara. Ordura arte beste nolabaiteko burbuila batean zainduko duzue zuen burua?

Aurtengo helburu nagusia Tourra zen; horretarako sekulako esfortzua egin dugu. Vueltarako behar bezala errekeratzen utzi beharko digute, bestela ezingo dugu behar bezala errenditu. Ziurrenik Vuelta hasi baino zertxobait lehenago kontzentratu beharko gara, ez dakit noiz eta nahiago dut momentuz ez jakitea.

Hortaz, Imolan jokatzeko ari diren Mundialetan Espainiako Selekzioarekin aritzeko deitu ez izana ongi etorri zaizula esan daiteke.

Gorka Izagirre eta biok geunden aurre zerrendan, baina Mundialetatik libratu izanagatik kasik kontentu nagoela aitortzen dizut. Mundialean dabilzanak Parisetik joan ziren zuzenean Italiara, birusaren aurrean burbuilan sartuta jarraitzeko eta PCR-en kontuengatik.

PCR probak egitea horren desatsingina da?

Beno, tokatzen zaizunaren arabera, baina bai. Sudur ederra dugunondako gaitzerdi, baina deskuido batean malkotan hasten zara. Barruraino sartzen dute makiltxo, eta han barruan makila eragin... Egia esan, PCR-ak eta ohiko analisiak direla, muturreraino kontrolatuta gaude. **COVID-19 dela eta, zer egin zaizu arraroena edo desberdinena?**

Maskararen kontua pisutsua egiten da. Mitikoak diren portuak hutsik ikustea ere oso arraroa egiten da.



Imanol Erbiti, Frantziako Tourreko aurreko larunbateko erlojupekoan. BETTINIPHOTO / MOVISTAR TEAM

Pirinioetako etapetan jende asko zegoen.

Pirinioetan egon zen jende gehien; girorik onena egon zen bertan, eta nabarmentzekoa da ikusleek maskara jantzeko neurriak Pirinioetan bete zituztela egokien. Pirinioetako ikusleen %90 maskara jantzita zuen, beste toki batzuetan ez bezala. Atzerriko jendeak ere aipatu zuen.

Hiriberriko koadrilakoak urtero doaz Pirinioetara zu animatzera.

Bai, Belagua ondotik pasatu zen etapan egon ziren, Ilzarbako portutik pasatu zen etapan. Gutxi gorabehera badakit non egoten diren, baina jende asko zegoen, lainoa, tarteko portua zen... ia ez nituen ikusi.

Zure jendea zu animatzen ikustearrekin gora egingo duzu.

Poza ematen du, Pirinioetan aritzeak bezala. Horrek beti egiten dio ongi gorputzari.

Tropeleko talde gizon preziatuenetakoa zara, edozein liderrek alboan nahiko lukeen ezkutari fidela. Eta, hala ere, zure taldekideek eta lagunek diote gizon umila zarela, eskuzabala, jatorra eta pertsona ona. Zure taldeak Twitterren bideo bat jarri zuen, zu autobusetik aterata eta irteera bidean zeundela, talde guztietako teknikarien agurrak jasotzen, zukanako duten estimuaren erakusgarri. Kariño hori nabaritutako duzu, ezta?

Bai, estimu hori sentitzen dut, eta hori da gehien betetzen naue-

na. Taldekideekin harreman ona izatea, euren estimua izatea eta elkarrekin gustura egoteak lana asko errazten du. Urteekin gauza horiek irabazten dituzu. Lagun asko ditut, baita egun beste taldeetan dabilzanak: Gorka eta Ion Izagirre, Mikel Landa, Andrey Amador, Nairo Quintana... polita da tropelean eurekin elkartzeara eta gustura hitz egitea. Kirol honen alde ederra da hau.

Jose Luis Arrietak aitortu zigun zurekin beste txirrindulari batzuekin baino harreman bereziagoa duela.

Jose Luis Arrietak txirrindulari egin ninduen, zer esango dizut! Beretik ikasi nuen. Arrirekin gustura egiten da lan.

Aurtengo Tourrean, aurrekoetan bezala, Valverde izan duzu logelako kide?

Bai. Harreman handia dugu, urte asko dira. Sekulako profesionala da; 40 urte ditu eta ia ez zaio adina nabaritzen, dena ematen duelako.

15 urte daramatzazu txirrindulari profesional gisa, guztiak talde berdinean. Inoiz Movistar Team taldea uzteko tentazioa izan duzu?

Batzuetan eskaintzak iritsi zaizkit; aztertu, baloratu eta taldean jarraitzeko erabakia hartu izan dut beti. Eta pozik nago taldean jarraitu izanagatik.

2021eko abendura bitarteko kontratua duzu Movistar Team taldearekin. Heldu den urtean, atzera ere, erabakiren bat hartu beharko duzu.

Bai, joko horretan murgildu beharko gara berriz.

Urriaren 20an hasiko da Espainiako Vuelta, Irunen. Enric Mas izango da zuen liderra, ezta?

Lehenik eta behin ikusi beharko da ea Vuelta jokatu daitekeen, pandemia dela eta. Gure liderra Enric izango da; Tourrean erakutsi duen mailarekin, ziurrenik Vueltarako hautagaietako bat izanen dela, eta hari laguntzen murgilduko gara buru belarri.

Bigarren etapa, urriaren 21ekoa, etxean jokatu da. Urbasatik Sakanara jaitsi, Sakana zeharkatu eta Uharte Arakildik Aralar igoko duzue, etapa Lekunberrin bukatzeko. Etxean jokatzeak gehiago motibatzen du?

Motibatzen du, bai. Ia-ia ardura bilakatzen da (kar, kar...).

Vuelta iritsi bitartean, indarrak berreskuratzea dagokizue.

Garrantzitsuena Vueltara ongi iristea da. Horretarako orain atsedean hartzea da ezinbestekoa, Tourreko lehiaketaren tentsioa askatzea. Egun batzuk lasai egon eta ongi errekeratu. Horrek emango digu hobekuntzarik onena, lasaitasunak. Tourrean saioitsu ibili naiz, ongi despeditu

"AURTENGO HELBURU NAGUSIA TOURRA ZEN; HORRETARAKO SEKULAKO ESFORTZUA EGIN DUGU"

ditu itzulia, baina urte arraroa da hau; begira, une oro kontu berdinerara itzultzen gara. Pentsa, sasoi honetan Vuelta despeditzearegongo zen, eta aurten, oraindik lan erdiak ditugu egiteko.

Orain arte zein liderrekin izan duzu harremanik onena?

Guztiek izan dut harreman ona. Ongi konpontzen naiz beraiekin; zu beraiek laguntzen saiatzen zara, eta esker onekoak izaten dira. Finean, taldekideak dira, eta zuk norbait laguntzen baduzu, eskertzen dizu. Baina denbora gehien Alejandro Valverderekin daramat, eta horrenbeste urteren poderioz, taldekide izateaz gain, laguna ere bada.

Hiriberrira askotan joaten al zara? Gurasoak bat Hiriberrikoa da eta bestea Irurtzun ondoko Larunbe herrikoa. Asteburu guztiak eta uda eta opor guztiak Hiriberrin pasa izan ditut eta oso gustuko dut.

Txirrindularitza denboraldia bukatzerakoan bertako lagunekin bazkaria egiten omen duzue Txitera elkartean.

Bai, ahal bezain pronto antolatuta beharko dugu bazkaria; ohitura onak ez dira sekula galdu behar. **Konfinatzen bagaituzte Hiriberrin ikusten zaitut.**

Zalantzarik gabe; guztia itxiko balitz egingo nukeen lehen gauza Hiriberrira joatea litzateke. Herri txiki batean beste askatasun bat duzu.

Herri kirolei aitortza, bideoan

HERRI KIROLAK Sakanako Mankomunitateak Sakanan herri kirol ezberdinak sustatzeko egiten den lana jaso du bideo batean. Erdoziak eta Corrozak egin dute, "herri kirolei hauspoa emateko eta lan ordainezina egiten duten boluntarioak omentzeko"

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Sakanako Mankomunitateak Kirol Zerbitzuak Sakanan herri kirol ezberdinak sustatzeko egiten den lana erakusten duen bideoa ekoitzi du. Amaia Erdoziak eta Oscar Corrozak egin dute, eta Mank-eko webgunean eta Youtubean dago ikusgai.

Astehenean egin zen bideoaren aurkezpena. Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak azaldu zuenez, ideia Aizkora Eskolako Miguel Angelen alaba Amaia Erdoziarena izan zen. "Amaiak Aizkora Eskola ezagutzen zuen, gertutik, eta aipatu zidan ideia polita litzatekeela Sakanako Aizkora Eskolari buruzko bideo bat egitea, bertan egiten den lana polita iruditzen zitzaioleko. Mankomunitatean ideia bikaina iruditu zitzaigun, baina Aizkora Eskolaz gain, Sakanako Harri Jasotze Eskolari buruz hitz egin nion, ikastetxeetan herri kirolak sustatzeko egiten den lanaz, Nafarroako Herri Kirol Jolasetan Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastolen parte hartzeaz, herri kirolak sustatzeko hainbat boluntarioen dedikazioaz... eta ikuspegia zabaldu eta Sakanan herri kirolak nola lantzen ziren erakusten zen bideoa egitea erabaki genuen" aipatu zuen Gerrikagoitiak.

Bideoan herri kiroleko eskolak barrutik nola diren ikusten dela nabarmendu zuen teknikariak. "Uste dut horrek beti animatuko duela jendea parte hartzera" gaineratu zuen.

"MANKOMUNITATEAK BERE SORRERATIK SUSTATU DITU HERRI KIROLAK"

AMAIA GERRIKAGOITIA

Erdoziak eta Corrozak 19 minutu pasako bideoa egin dute, ikusteko arina eta gurean herri kirolak sustatzeko egiten den lana ongi islatzen duena. Aurkezpenean Aizkora Eskolako Juanito Erdozia, Harri Jasotze Eskolako Mikel Lasarte, Sokatira Eskolako Nerea Lizarraga eta Andra Mari ikastolan herri kirolak sustatzen urte mordo daramatzan Jexux Senar izan ziren. Ekitaldian egoterik ez zuten izan baina herri kirolean ibiltzen direnak izan zituzten gogoan, nazabaldarrak, Axio Flores zena, Jesus Mari Arza edo gorrititarrak, tartean. Bideoa "oso polita" zela aitortu zuten.

Amaia Erdozia: "Sakandar asko daude herri kirolari asko ematen diotenak"

Amaia Erdozia pozik geratu da egindako lanarekin. "Sakanan herri kirolak sustatzeko eskolatan eta ikastetxeetan egiten den lan handia jasotzen du; ez da bakarrik kirolaren aldetik egiten duten lana, euskal kulturari begira egiten dutena ere nabarmendu nahi genuke. Eta bideoarekin lan hori jaso eta gorde nahi da, halakoak gordetzea oso garrantzitsua delako. Lan hori borondatezkoa da, eta egiten duten lana omendu nahi du bideoak. Izan ere, gurean pertsona asko daude herri kirolari izugarri ematen diotenak" azaldu zuen Amaia Erdoziak aurkezpenean.

Amaia Gerrikagoitia: "Herri kirolak indarra galtzen ari zirelako kezka genuen, eta 2004an Aizkora eta Harri jasotze Eskolak jarri genituen martxan" Sakanako Mankomunitateak bere sorreratik sustatu ditu herri kirolak. Kirol Zerbitzua duela 19 edo 20 urte Sakanako Herri

Kirol eguna antolatzen. Baina 2004. urtean Sakanan herri kirolak ahultzen ari zirela jabetu ziren. "Ikastetxeen arteko herri kirol topaketak antolatzea bururatu zitzaigun; horretarako, ikastetxe guztiei herri kirol materiala banatu genien, unitate didaktikoak sortu genituen, eta orduan ziurtatu genuen Sakanako ume guztiak herri kirolak ezagutzen zituztela, ikastetxean lantzen zituztelako. Harrera bikaina izan zuen. Hala ere, herri kirolak indarra galtzen ari zirela eta, kezka genuen. Horrela, Nafarroako Gobernuko dirulaguntza aprobetxatuta, Sakanako Aizkora Eskola jarri genuen martxan Etxarri Aranatzan, eta Sakanako Harri Jasotze Eskola Irurtzunen. Sakanako Sokatira Taldea martxan zegoen Arbizun, eta baliabide ezberdinekin laguntza eman genien" aipatzen du Amaia Gerrikagoitiak bideoan.

Sakanako Aizkora Eskola Axio Flores zenak eta Kirol Zerbitzuak jarri zuten martxan. Juan Mari eta Floren Nazabal izan ziren lehen irakasleak, Axiorekin batera, eta nazabaldarren bordan aritzen ziren. "Axio beti prest zegoen edonor laguntzeko. Gazteei erakutsi beharra zegoela, eta horrela hasi ginen, gurean gazte kuadrilla bat trebatzen, hiru hilabetez, astean bitan. 15 gazterekin hasi ginen" gogoratzen du Juan Mari Nazabalek bideoan. Floren txapeldun handiak halako eskolak egotea beharrezkoa dela gaineratzen du bideoan.

"BIDEOAK SAKANAN HERRI KIROLAN ALDE EGITEN DEN LANA JASOTZEN DU"

AMAIA ERDOZIA



Mikel Lasarte, Nerea Lizarraga, Juanito Erdozia, Amaia Erdozia, Amaia Gerrikagoitia eta Jexux Senar

"Herri kirolek aurrera egiteko eskolak beharrezkoak dira. Izan ere, aizkora trebatzeko materiala behar da: egurra, aizkorak, egurrak kontserbatzeko bordak edo pabilioiak, entrenatzeko tokia... edonork eskura ez dituenak. Laguntza behar da materiala prestatzeko, eta irakasle bat, aizkoraz dakiena. Eta Aizkora Eskolak hori ematen du. Gazteei aukera bat ematen zaie, behintzat, aizkora ezagutu dezaten. Aukera bat da gazte jendeak ikasteko kirola nolakoan den" dio bideoan.

Urte batzuren buruan, Axio gaixotu zen, nazabaldarrek utzi zuten eta erdoziatarrek hartu zuten eskolako ardura. "Ni jubilatuta nengoen eta pentsatu nuen laguntzarekin egingo genuela; Aizkora Eskola aurrera aterako genuela; eta hala segitzen dugu" azaldu zuen Juanitok.

Juanito Erdozia: "Trebe garen bitartean, Aizkora Eskolan jarraituko dugu"

"Sakanako herri kiroleko eskolak oso ongi daude, garrantzitsuak dira gazteei aizkora, harri jasotzea eta halakoak erakusteko. Gure garaian Katxo zena egon ez balitz, gu ez ginen aizkora ibiliko. Eta Aizkora Eskolak zaletu haiek egiten zutena eskaini nahi du. Aizkora eskolan gazteei garaz bidaltzen zaie informazioa, zer den eskola, non apuntatu ahal diren... garbi-garbi. Jendeak badaki eta nahi duena joaten da" azaldu zuen aurkezpenean Aiz-

"TXIKI BAT ENBORRA MOZTEN IKUSTEAK EMATEN DIDAN POZAK EZ DU PREZIORIK"

JUANITO ERDOZIA



har, bideoaren aurkezpenaren egunean.

kora Eskolako egungo arduradun Juanito Erdoziak, bideoa "asko" gustatu zaiola azpimarratuz. "Boluntarioek egiten dugun lanaren aitortza den aldetik, bideoa eskertzen dut. Sarritan esaten dit andreak, ea zergatik oraindik halako lanak hartzen ditudan, baina nik esaten diot nik ez dudala Aizkora Eskola utziko. Lan hau egiten jarraituko dut, gustura, trebe naizen bitartean. Kirola egitea oso garrantzitsua da, oinarrizkoa, eta guk aizkorekiko sekulako zaletasuna dugula kontuan hartuta, txiki bat mozten ikustean horrek ema-

"16 URTE HAUETAN 50 PERTSONA INGURU PASAKO ZIREN HARRI JASOTZE ESKOLATIK"
MIKEL LASARTE

ten didan pozak ez du preziorik. 20 urte dituztenera bitartean kirolean badabilta, hori bide ezin hobea da pertsona egiteko" nabarmendu zuen Erdoziak.

Erdoziatarren bordan mugimendu handia egoten da. Aizkora eskolak asteartetan eta ostiraletan ematen dituzte Juanitok, Miguel Angelek eta Juanjok. "Ebakitzen ordu bata aritzen gara, baina aurretik prestaketa lan handia dago. Nafarroako Gobernuak Aizkora Eskolari 20 enbor ematen dizkigu urtero, baina horiek bota eta bidera atera behar dira, traktorearekin. Hori guk egiten dugu, Manolo Gorritirekin. Gero Mankomunitateak bidalitako kamioi batek jaisten ditu bordara. Han, egurra ongi mantendu behar da, heze. Horretarako belarra jartzen diegu gainean, eta ureztatu. Eta, klase bezperan egurrak atera,

Bideoa ikusteko

Youtube

<https://youtu.be/oEQSlxkWcJA>

Mank-eko webgunean

<http://sakana-mank.eus/sakanako-herri-kirol-eskolen-inguruko-bideo-berria/>

balio duena utzi, besta kendu, enborrak prestatu, txafianak egin, josi eta borda barrura sartu. Horrela ibiltzen gara" zihoen Erdoziak.

Aurten, 2020an, 18 gazte hasi ziren trebatzen. Hiru saio egin zituzten eta konfinamenduagatik dena gelditu zen. Irailean berrekin diote ikastaroari, eta urte bukaera bitartean lanean ariko dira. "Neska bat dago, eta oso poliki ari da jartzen. Mutiletan oso onak daude, baina onak e? Oso ongi dabilta. Gu hiru belau-naldi aritu gara sarritan, erakustaldietan, eta izugarri pozten nau horrek. Handia da kirolak segida duela ikustea" aitortu zuen Erdoziak. 2021ean ohiko moduan hasteko asmoa dute, egoerak uzten badu behintzat, martxotik ekainera bitartean; orduan irekiko da izena ematea.

Mikel Lasarte: "Eskola egotea oso garrantzitsua da, bestela jendeak ez ditu eskura harriak ez teknika erakutsiko dionik"

Mikel Lasartek aurkezpenean aipatu zuen Sakanako Harri Jasotze Eskola urte osoan dagoela zabalik. "Harri jasotzen trebatzeko urte guztian aritu beharra dago lanean. Konfinamenduan geldialditxo bat egin genuen, baina gero berehala hasi ginen entrenatzen. Hortaz, noiznahi norbait animatzen bada, Irurtzunen ongietorria izango da. Etortzen denari gogoa eta seriotasun pixka bat eskatzen diogu; harriak jasotzen ikasteko gogoa eta zaletasun pixka bat behar

"NESKEK ETA MUTILEK OSO ONGI PASATZEN DUTE HERRI KIROLETAN"
JEXUS SENAR



2018an Lakuntzan jokaturako Sakanako Herri Kirol Eguneko parte hartzaileak. ARTXIBOA

baita. 16 urte hauetan hona probatzea asko etorri izan dira, urtero lauzpabost. 50 lagun inguru pasako ziren hemendik, baina gero jarraitzea ez da hain erraza, kirol honetan sufritu beharra dagoelako eta urte osoan lanean aritu behar delako, etenik gabe, kirolari onak ateratzeko. Teknika asko landu behar da, posturak zaindu, gorputzaren ergonomia eta kontrapeisua bilatu... Ikastea kosta egiten da, baina behin ikasiz gero ia beste gauza bat da" azaldu zuen Lasartek.

Egun hiru harri jasotzaile trebatzen dira Irurtzango eskolan, eta bakarra da sakandarra, Jon Irañeta irurtzundarra. Gainontzekoak ingurukoak dira, Arostegiko Julen Kañamares eta Berriozarko beste gazte bat. "Txapeldun bat dugu, Jon Irañeta, eta txapeldun bat ateraz gero motibazioa ere gehixeagoa izaten da. Ildo honetan, azaroaren 6an Nafarroako Harri Jasotze Txapelketa jokatu da Irurtzunen. Aurtengoa urte arraroa izan da, zailtasun asko dago txapelketak jokatzeko, eta txapelketa Irurtzunen antolatzearen aitzakia-rekin gazteak motibatuta daude" nabarmendu zuen.

Irurtzango Udalak utzitako lokal batean dago Sakanako Harri Jasotze Eskola. Lokala nahiko handia da, eta urtez urte harri bilduma polita osatu dute. 30 harri pasa daude eskolan, tamaina, pisu eta forma ezberdinetakoak: zilindroak, laukizuzenak, kubikoak, bolak... "Eskola leku aproposa da harri jasotzean trebatzeko. Gaur egun eskola egotea oso garrantzitsua da, bestela jendeak ez ditu eskura harriak eta behar diren materialak, ez teknika erakutsiko dionik. Horregatik sortu genuen eskola, jendea irrazteko" ondorioztatu zuen Lasartek.

Jexus Senar: "Herri kirola kirolirik garbiena da, kiroltasun handikoa, noblea"

Jexus Senar ez da Mankomunitateak aurkeztutako bideoan ateratzen, baina urte mordoan daramatza Sakanako herri kirolak sustatzen, bereziki Andra Mari eskolan neska mutikoak trebatzen, gerora Nafarroako Herri Kirol Jolasetan parte har dezaten. Jubilatuta dago, baina oraindik ere herri kirolean jarraitzen du, Mikel semearekin. Herri kirolek gora egin dutela argi du. "Taz Andra Marirekin Nafarroako Herri Kirol Jolasetan aritu ziren taldeek gora egin zuten. Kimuetan 8-9 talde ginen, haurretan bospasei, kadeteetan hiruzpalau, eta sokatiran ere talde asko. Andra Maritik 100 ikasletik gora ibili ziren, astebururo bi autobus goraino mugitzen genituen. Hori asko da, e? Eta horri Iñigo Arizako taldeak eta Nafarroako beste talde guztiak gehitu behar zaizkio" azaldu zuen. Tamalez, COVID-19 birusarengatik bertan behera geratu zen txapelketa, eta ikasturte honetan txapelketa antolatuko ote den zalantzan jartzen du. "Ez dakit aukerarik izango ote dugun; zaila ikusten dut, bai entrenatzeko eta baita lehiatzeko ere" gaineratu zuen.

Herri kirolei ez dizkie onurak besterik ikusten. "Niretzat herri kirola kirolarik garbiena da, eta haurrak oso gustura egiten dutena. Kiroltasun handiko kirola da, oso noblea. Neskak eta mutilak berdinduz aritzen dira:

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

"NAFARROAKO TXAPELKETARAKO SOKATIRA TALDEAK TREBATZEN DITUGU"
NEREA LIZARRAGA



Erdoziatarak etorkizuneko aizkolariekin, Sakanako Herri Kirol Egunean. ARTXIBOA

trontzan jartzen badituzu, ahal duten guztia egiten dute, eta gustura; zaku bat jartzen badiezu, berdin; koxkolak jartzen badizkiezu, berdin... Sokatiran talde mistoak dira, nahastuta aritzen dira; berdin zaie. Hori da herri kirolek duten gauzarik hoberena" ondorioztatu zuen.

Sakanako Mankomunitateak urtero antolatzen duen Sakanako Ikastetxeen Arteko Topaketak duen arrakasta ekarri zuen gogora. "Oso ongi pasatzen dute, herri guztiko ikastetxeetako haurrak nahasita osatzen dira taldeak, eta gure gaztetxo guztiak herri kirolean aritzen direla ziurtatzen dugu. Amaia Gerrikagoitiari beti esaten diot herri kirol topaketa hauek gehiagotan egin beharko zirela: hiru hilabete behin, urtean behin egin beharrean. Horrela haurrek hobeki ezagutuko zuten elkar, harreman gehiago egingo litzukete... herri kirolean asko gozatzen dute, asko gustatzen zaie" aipatu zuen.

Nerea Lizarraga: "Gustura ibiltzen dira sokatiran eta talde politik egiten dira"

Nerea eta bere ahizpa Belen Lizarragak urte asko daramatzate sokatiran. Bere garaian Mundu-

ko Txapelketa irabazi zuen Sakanako Sokatira Taldeko kideak biak, gaur egun Arbizuko Sokatira Eskolan aritzen dira Andra Mari eta Iñigo Aritzta ikastole-tako sokatira taldeak prestatzen, Nafarroako Herri Kirol Jolasetan aritzeko. Bideoan Sokatira taldeko urrezko garaia ekartzen ditu gogora Belenek. "Ikusten da zer lan dagoen horren atzean" azaldu zuen Nereak aurkezpenean. Gaur egun ez dago talderik. "Taldea osatzea zaila da. Zortzi bat pertsona elkartzen dira, baina gero zortzi horiek taldean jarraitzea oso zaila izaten da. Jarraipena ematea zaila da. Horregatik, aspalditik ikastole-tako sokatira taldeak trebatzen aritzen gara. Gustura ibiltzen dira eta talde politik egiten dira" gaineratu zuen Nereak.

Eskolak dauden bitartean, beraz, aurrera egingen dute herri kirolek. Urte askotarako izan dadila.

"HERRI KIROL EN ALDE HORRENBESTE LAN EGITEN DUTENENDAKO AITORTZA DA" AMAIA ERDOZIA



Nerea Lizarraga sokatira taldea gidatzen, Sakanako Herri Kirol Egunean. ARTXIBOA

Adanoren aldeko Zumbathoia Uhartan

ZUMBA Igandean izanen da, goizeko 11:00etan, Uhartan Arakilgo pilotalekuan. Bildutakoa minbizia duten haurren Adano elkarterari bideratuko zaio. Sei monitore eta aurkezle ezagunak izanen dira: Amaia Madinabeitia, Africa Baeta eta Aitor Zubieta

Uhartan Arakilgo Udalak eta minbizia duten haurren Adano elkarterak Adanoren aldeko Zumbathoia antolatu dute igandera Uhartan Arakilen, hainbat babesleren laguntzarekin. Goizeko 11:00etan hasiko da ekitaldia, Uhartan Arakilgo frontoian, eta izena ematea zabalik dago Uhartan Arakilgo Udalean edo 652 17 81 22 telefono zenbakira whatsapp bidalita. Zumbathoian parte hartuko dutenek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta ikusleek, aldiz, 2 euro, eta jasotako guztia 1989tik minbizia duten haurren, nerabeen eta haien senitartekoen alde lan egiten duen Adano elkartera bideratuko da.

Sei monitore, sei estilo

COVID-19 pandemia dela eta, antolatzaileek beharrezko segurtasun neurri guztiak beteko direla ziurtatu dute. Musikari jarraiki zumba monitoreek prestatutako koreografiekin goiz ederra pasatzea izanen da hel-



Igandean Uharteko Zumbathoian parte hartzeko deia egin dute. UTZITAKOA

burua. Sei monitore igoko dira oholtzara, bakoitza bere estilo eta koreografia propioekin, gutu guztiak asetzeko: Itziar, Mery, Sali, Mayra, Marian eta Leire Rabaz. Azken horrek txikienekin egingen du lan.

Aurkezle lanetan aurpegi oso ezagunak arituko dira: Navarra Televisioneko aurkezle Amaia Madinabeitia uhartarakildarra, ETB2ko albistegien aurkezle Africa Baeta eta Aitor Zubieta pilotari ohi etxarriarra.

Burundakoak eta Aralarkoak Lizarrako podiumean

TXIRRINDULARITZA Juniorretan Unai eta Hugo Aznar anaiak eta Igor Arrieta igo ziren podiumera

Igandean kadeteen eta juniorren II. The Faculty-Lesaga Kafeak Txapelketa jokatu zen Lizarran. Kadeteen mailan hirukote bat iritsi zen helmugara, Rural Kutxako Markel Galparsoro buru zela. Quesos Albeniz-Burundako Mikel Uncilla 7. postuan sartu zen, bere taldekide Ander Villalobos 9. eta Sakanako Group-Aralar taldeko Aimar Tadeo 11. Mikel Regil 27.a sailkatu zen, Adrian Martinez 36.a, Asier Etxeberria 40.a, Alex Lopetegi 49.a, Manex Zufiaurre 76.a eta Unax Trevejo 78.a.



Lizarrako juniorren podiuma. MARTIN EARLY

Junior mailako lasterketa ere oso gorabeheratsua izan zen. Laukote bat iritsi zen elkarrekin helmugara, eta esprintean, Quesos Albeniz-Burundako Unai Aznar gailendu zen, bere anai Hugoren eta Sakanako Group-Aralar taldeko Igor Arrietaren aurretik. Iker Mintegi laugarrena sartu zen, Aitor Alberdi 9. postuan sartu zen, Mikel Olaetxea 16. postuan, Jon Erdozia 19. postuan, Oihan Etxeberria 27. ean eta Unax Miranda 37. ean. Taldeka Quesos Albenizek irabazi zuen eta mendiko sailkapena Igor Arrietarendako izan zen.

Arrieta Mundialik gabe

Igor Arrieta ez da egunotan jokatzen ari diren Mundialetan ariko, juniorren mailako txapelketa bertan behera utzi dutelako. Soilik eliteena da jokoan dagoena.



Yoli Arnedo 'Birziklatzea baino gehiago' erakusketaren mustutze egunean.

ALTSASU

Eraberritutako altzariak, aulkiak, kutzak, dekorazio piezak eta abar ikus daitezke Yoli Arnedoren arte tailerraren erakusketan. Ostiralean mustu zuen Iortia kultur gunean eta urriaren 2ra arte egonen da. Martxoan koronabirusak eragindako osasun krisialdiagatik egindako konfinamenduaren ondorengo lehenengo erakusketa da Arnedoren eta bere ikasleen lanena. Lehen urtean behin egiten zuten, baina bi urtetik behin egitea erabaki zutela esan du Arnedok.

Teknika asko eta desberdinak erabiltzen dituzte arte-dekorazio tailerrean. "Denboraldiaren hasieran teknika berriak aurkezten dizkiet eta erabili ohi dituzte gustatzen zaielako edo bereziak iruditzen zaizkielako". Beste ikasle batzuk "idea batekin" joaten direla azaldu du artistak. "Batzuetan zerbait modu jakin batean birziklatu nahi dutela esaten didate, toki jakin batean jarri behar dutelako". Tailerrean gauzei, elementuei eta materialei bizi berri bat ematen diote. Erakusketan bi urte hauetan egindakoaren %20 baino ez dagoela esan du Arnedok. "Asko ekoizten dugu".

"Dagoeneko ez dakit zenbat teknika erabiltzen ditugun, hainbeste denbora aritu naizenez bueltak ematen...". Deneratiko gauzak egiten dituzte: oxidazioak, superproduktioak paperekin edo txantiloekin, scrap motatako paperekin gau-

Historia duten gauzak berpizten

Yoli Arnedok arte-dekorazio tailerra du Altsasun. Bertan ikastaroak ematen ditu, eta gauzak eraberritzen dituzte: 'Birziklatzea baino gehiago'. Azken bi urteetako lanen erakusketa mustu zuen ostiralean

za asko egiten dituzte, egur teknikak, aluminioa, margoa, akuarelak eta abar. "Suertatzen dena". Birziklapena, azken finean. Gehienbat altzari zaharrak eraberritzen dituzte, nahiz eta gauza berriekin ere lan egiten duten. "Ekartzen dituzten gauzak izaten dira". Kalabazak eta erlojuak apaintzen dituzte, baita larruzko eguzki loreak egin ere. Lanei "zerbait gehiago ematen" saiatzen da.

"Txikitatik" gustatu izan zaio margotzea eta dekoratzea Arnedori. "Haurra nintzela nire aitari Donald ahate bat margotu

"BIZITZAK ERAMATEN ZAITU ETA ZU EGOERARA EGITEN ZARA; EZIN NAIZ GELDIRIK EGON"

nion. Primeran gogoratzen dut margotu nituen lehenengo gauzetariko bat izan zelako". Gainera, oso "saltseroa" dela aitortu du eta teknika berriak ikasten eta ikertzen ari da etengabe. Proiektu berriak izatea ere gustatzen zaio. "Institutua bukatu nuenean ehun diseinua ikasi nuen. Hortik nator. Gero zaharberritze ikastaroak egin nituen eta arte ederretako material denda batean lanean hasi nintzen. Hor hasi nintzen pixka bat mundu honetan".

Arte-dekorazioa

Dekorazio ikastaroak ematen hasizen orduan, Iruñean. "Bizitzak eramaten zaitu eta zu egoerara egiten zara". Haurrak izan zituen "pixkanaka" Altsasura "gerturatzea" pentsatu zuen. "Esaten dute inor ez dela profeta bere lurrean, baina saiatuko nintzela

pentsatu nuen". Hortaz, San Juan kalean erakuslehi bat jarri zuen arte-dekorazio ikastaroak ematen zituen karteltxo batekin, eta "harrera ona" izan zuen. "Gainera, ordutegira moldatzen ziren". Pixkanaka Iruñea utzi zuen, eta Altsasun tailerra jarri zuen. Duela 15 urte baino gehiago izan zen. Batzuetan "familia handi bat" direla aitortu du. "Ikasle batzuk hasieratik datoz. Urtero lau edo bost pertsonaren aldaketa dago. Batzuek uzten dute eta beste batzuk etorri".

Arte-dekorazio tailerra ikasle batzuek "terapia antzeko"

"ETXEETAN SARTZEA IZANGO DA; HORMAK PIXKA BAT APAINDU ETA ALTZARIAK ZAHARBERRITU"

bat dela esan du Arnedok. "Batzuek astean egiten duten ekintza bakarra da". Talde politak sortu direla esan du artistak, "giro oso ona dago". Hortaz, lagun taldeak ere sortu dira. "Nik uste lasaitzen direla. Gustura daudela nabaritzen da". Bere lanagatik "goraipamena" jasotzen du Arnedok, "askotan eskertzen didate eta ni oso lotsatia naiz...".

Ezin geldirik egon

Koronabirusak "gogor jo" dio Arnedori: "Martxotik tailerra itxita dut. Urriaren lehenengo astean hasiko gara, ea egoera lasai dagoen". Konfinamenduak eta egoera honek proiektu berri batean pentsatzeko denbora eman dio. "Ferietan hasi nintzaion buruari bueltak ematen". Izan ere, aitortu duenez, "oso aktiboa" da eta ezin da geldirik egon.

"Dena jostea gelditzen zaigu". Javi Traperorekin birziklapena eta arte-dekorazioa uztartuko dute altzariei eta tokiei bizi berri bat emateko. Erakusketan Xarmaren aurkezpen txiki bat egin nahi dute. "Etxeetan sartzea izango da; hormak pixka bat apaindu eta altzariak zaharberritu". Etxeetan dauden altzari zaharrak berpiztuko dituzte. "Ikeakoa ez den altzari bat izatea gomendatzen dut. Nahi dituzun koloreetan, pertsonala, eta aitona-amonon altzari bat bada, askoz hobea".

Zerbait "berezia" gordetzeko modu ezin hobea dela adierazi du Arnedok. "Oso polita da historia duten gauzekin lan egitea. Jendeak istorioak kontatzen dizkizu eta berezia da". Urteetan altzari eta gauza zaharrak botatzeko ohitura egon dela aipatu du Arnedok, "eta pena da. Gauza oso txukunak daude". Gaur egungo masan saltzen diren altzariak "estetikoki ongi" egon daitezkeela, baina kalitatez ez direla oso onak azaldu du. "Altzariak zaharberritzea itzultzea gustatzen zait". Frantzian ohitura handia dutela esan du. "Gauza horien atzean maitasuna egotea".

Arte-dekorazioa "mundu" bat da eta Arnedo etengabe ikasten ari da. "Saltsero bat naizenez Laredora joaten naiz, Zaragoza-ra, Madrilera ikastaroren bat egitera...". Gainera, produktu berriak ateratzen direnean haiekin ikertzen duela azaldu du. "Udan egiten dut hori". Sare sozialetan asko begiratzen duela ere esan du.

"Gaia oso interesgarria, erakargarria eta misteriotsua da"

IKER GANUZA TABERNA EKOIZLEA

Donostiako 68. Zinemaldian Sail Ofizialean lehiatzen ari da 'Akelarre' filma. Aurtengo edizioan Urrezko Maskorrerako izendatua izan den Euskal Herrian grabatutako filma

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Akelarren filmaren hainbat eszena Urban grabatu zituzten. Sara Mazkieran altsasuarra zuzendari laguntzailea izan da, eta Altsasuko figuranteek ere parte hartu zuten. Ekoizletako bat Iker Ganuza Taberna da. Ez da Sakanan bizi, baina Sakanare-

kiko harreman zuzena du: bere ama Helena Taberna zinemagile altsasuarra da, eta bere emaztea Ziordikoa dela esan du. "Etxean" grabatu zuen, beraz, *Akelarre*. Filmak Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra irabaz dezake bihar. Urriaren 2an zinema aretoetara iritsiko da.

Filmaren izenburuak berak, *Akelarre*, sorginei eta sorginkeriarri buruzko film bat dela adierazten du, baina zer kontaktzen du filmak?

Akelarre filma Pierre de Lancre epailearen *Tratado de la inconstancia de los malos angeles y demonios* liburuan oinarrituta dago. 1.609. urtean argitaratutako li-



Iker Ganuza Taberna 'Akelarre' filmaren ekoizlea. UTZITAKOIA

burua da eta epaile honek ustez sorginak ziren neskekin izandako esperientziak kontaktzen ditu. Pablo Aguero zuzendaria liburuan oinarritu da bere interpretazioa eta bere istorioa sortzeko.

Sorginen gaiari beste interpretazio bat ematen dio?

Hori da. Ikuspuntu nahiko modernoa eta aktuala ematen dio. Neskek ez dakite zer gertatzen ari den, bat-batean atxilotzen dituzte, epaileak galdera arraroak egiten dizkie... Bizirik mantentzeko egin behar dutena kontaktzen du.

Nola sortu zitzaizun parte hartzeko aukera? Zer gustatu zitzaizun film honetatik?

Gaia eta istorioa. Pierre de Lancren istorioa betidanik gustatu izan zait. Duela 10 urte inguru amarekin antzeko proiektu bat garatu nuen. Liburua irakurri genuen, gustatu zitzaizun eta gidoi baten lehenengo bertsioa idatzi genuen. Baina momentu horretan horrelako proiektu handi baterako oso zaila zen finantzaketa lortzea eta itxoien genuen. Beste film batzuk egin genituen: *Berri Ona*, *Nagore* eta beste zenbait film. Duela hiru urte, Donostian, Jose Luiz Reborinosok Pablari nire eta Koldo Zuazoren, beste produktorearen,

kontaktua eman zion; biok elkar-tu ginen eta saiatu behar ginela esan genuen. Dirua bilatzen hasi ginen, finantzaketa lortzen eta nahiko ondo joan zen. Gidoia asko gustatu zitzaizun, gaia gustatzen zitzaizun, eta elkarrekin hasi ginen lanean. Orain arte.

Zergatik gustatzen zaizu sorginen inguruko gaia?

Niretzat historia aldetik gaia oso interesgarria, erakargarria eta misteriotsua da. Baita publikoarentzat ere. Toti Martinez de Lezearen irakurle guztiei, adibidez, gaia gustatzen zaie. Beti jakin nahi izan dut benetan zer gertatu zen. Nondik sortu zen fantasiazko iruditegi hori, eta erlijioak nola eragiten zuten. Zer gertatu zen emakume horiekin. Nola iritsi ziren puntu horretaraino, sutan ehunka emakume erre izana. Beti izan dut interesa eta curiositatea. Beste alde batetik, egin daitezkeen irakurketak nahiko aktualak dira. Gaur egungo ikuspuntutik ikusi ahal da filma.

Mezu feminista helarazten omen du. Esan daiteke baietz. Zerbait naturala da. Nesken ikuspuntutik kontatuta dagoeta neskek mugitzen dute istorioa. Atxilotzen dituzte eta haiek pentsatu behar dute



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO

Azaleko orbanak eta orbainak

Maiz erlazionatzen ditugu azaleko orbanak eguzkiarekin, baina arazo askogatik atera daitezke gure aurpegian. Pikorrek ere orban asko sortzen dituzte, batez ere hauek ukitzen ditugunean. Orbanak gehienetan melanina faltagatik edo melanina gehiegi izateagatik ateratzen dira. Orain, maskararen erabilpena dela eta, pikor asko ateratzen ari zaizkigu azalak arnasten ez duelako.

Orbainak edo markak normalean pikor handiak ditugunean ateratzen dira, hauek folikuluen paretak hautsi ditzaketelako eta, horrela, azal birsorkuntza ezinezkoa egiten da. Orbainak ere kolageno edo ehun falta dugunean sor daitezke.

Hauek kentzeko etxeko gomendio batzuk:

- **Aloe vera:** Bikaina da azala birsortzeko eta orbaintzeko. Pulpa edo mamia egunean bitan zaurian jarri. Landarea ez baduzu, aloe vera portzentaia handia duen kremaren bat erosi.

- **Sodio bikarbonatoa:** Bikarbonatoa uretan nahastu eta zaurian ipini segundo batzuetan. Ur askorekin urberritu.

- **Limoi zukua:** Kotoi batean busti eta zaurietan ipini.

- **Tomate birrindua eztiarekin:** Tomate birrindua ezti pixka batekin nahastu eta maskara bat egin. Maskara aurpegian jarri 15 minutu, eta urarekin urberritu.

- **Arrosa mosketa olioia:**

Kotoi bat uretan busti, xukatu, olio tanta batzuk ipini eta zaurietan eman.

- **Pinaburu birrindua:**

Pinaburuak kolageno produktioa estimulatu lagunduko du; aurpegian ipini eta 15 minutuz utzi. Kotoi batekin kendu eta ondoren ur epelarekin urberritu.

- **Koko olioia:** Aurpegia garbitzean (goiz eta gauean), garbitzeko xaboiari olio tanta batzuk bota.

- **Orabanen agerpena nola ekidin:**

- **Barazki asko jan.**

- **Ur asko edan.**

- **Eguzkitako krema:** Urte guztian erabili, eta eguzkitan jarri baino 30 minutu lehenago bota.

- **After sun:** Eguzkia hartu ondoren beti erabili, azala berriz hidratatzeko.

- **Txokolatea murritzitu.**

- **Granoak ez ukitu.**

- **Aurpegia ondo garbitu.**

bizirauteko zer egin behar duten. Borroka bat da. Neska horien edo herriaren eta epailearen eta bere taldearen kontra. Orduan, epaileak gizonak dira, helduak, eta neskek gazteak dira. Borroka horren irakurketa nahiko feminista da.

Filmetan eta iruditegi kolektiboan agertzen diren sorginak gaiztoak, zaharrak eta itsusiak dira. Akelarre filmekoek beste irudi bat ematen dute, ezta?

Filme honek salatzen duena da neska hauek ez zirela sorginak, edo, hobe esanda, imajinarioan sorginei buruz dugun ideia horretakoak. Haiek haien bizitza zuten, basoetan abesten, dantzatzeko eta festak egiten zituzten eta abar. Eta orduan, etorri ziren batzuk esanez festa horiek deabruaren errituak zirenez... Ideia hori sartzeko ari ziren. Film honek sorginkeriaren iruditegiaren sormena planteatzen du. Nondik sortu zen? Herriaren iruditegitik? Ipuinetatik? Edo inkisidoreen edo erlijiodunen ideietatik?

Kontatzeko beharra zegoen?

Liburuetan eta beste film batzuetan kontatu izan dute. Euskal Herriko istorioetan historia oso sartuta eta errotuta dago. Pabloren ispiuarekin eta narratzeko moduarekin zerbait berria eskaintzen du proposamenak.

Aipatu duzu neska horiek dantzatzeko eta abesten dutela. Dantza eta musika garrantzitsuak dira?

Oso garrantzitsuak. Bai sinbolikoki bai errealitatean izan zirelako ere. Epaileari eta bere taldeari harrizten dien elemen-

"FILM HONEK SORGINKERIAREN IRUDITEGIAREN SORMENA PLANTEATZEN DU"

"PABLOREN KONTATZEKO MODUAREKIN ZERBAIT BERRIA ESKAINTZEN DU"

"GAIA UNIBERTSALA DA; SORGIN EHIZAK EUROPA OSOAN EGON ZIREN XVII. MENDEAN"



Akelarre filmaren hainbat eszena Urbasan grabatu zituzten. DAVID HERNANZ

tu bat da. Nesken askatasuna eta poza dantzaren eta musikaren bidez adierazten da. Neskek dantzatzeko eta abesten dute, eta epaileari eta bere taldeari harrizten dien elementu bat da. Eta ez zaie batere gustatzen. Izateko modu arraroa iruditzen zaie eta deabruarekin lotzen dute. Dantzak Myriam Perez koreografoarekin prestatu ditugu eta oso landuak daude. Inprobisatuak direla dirudi, baina oso landuak daude. Musika Maite Arroitauregi eta Aranzazu Calleja musikariek egin dute, Jon Maiaren letrekin. Herri abestiak edo mantra antzekoak dirudite. Betidanik herrietan abestu izan balira bezala.

GRABAZIOA

Nolakoa izan da prozesua?

Proiektu luzea izan da. Guztiak bezala. Proiektu handia izan da, eta aurrekontua ere handia izan da. Baina asko gustatu zait. Lehenengo gauza, film guztiakin bezala, finantzaketa eta banatzaileak lortzea izan zen. Dirua mahai gaineandagoanean film prestatzen hasi behar da, eta lehenengo gauza casting-a izan zen. Txabe Atxak eta Flor Gonzalezek izugarritzko lana egin zuten. Oso casting luzea eta konplexua izan zen. 900 neska inguru ikusi genituen. Zuzendariak neska ez profesionalak nahi zituen, espontaneoak. Euskal Herri osotik aritu ginen neskek bilatzen.

Helburua lortu zenuten?

Lan handia izan zen, eta oso pozik gaude. Sei neskek oso ondo egiten dute. Momentu berean lokalizazioak bilatzen aritu ginen. Amildegia ikaragarri bat nahi genuen, eta ez genuen topatzen. Azkenean, Urbasako Ubabako

amildegia, Pilatosko balkoia, erabili genuen. Modu digitalean itsasoa jarri diogu.

Beste erronka bat hizkuntzak izan dira: euskaraz eta gaztelaniaz grabatuta dago.

Neskek hitz egiten dutenean, beraien artean, euskaraz egiten dute. Erronka izan zen zuzendariak ez dakielako euskaraz. Gidoia lantzea ere oso zaila izan zen hasiera batean neskek ez zutelako gaztelania hitz egiten jakin beharko. Azkenean, aldatu genuen bestela oso konplikatu izan behar zelako. Entseguetan ere neskek Euskal Herriko hainbat herritakoak direnez, bakoitzak bere euskalkia zuten, eta naturalki hitz egiteko, inprobisatzen arituko balira bezala, oso zaila zen bakoitzak bere euskalkia erabiltzen zuelako eta batuaz hitz egiten bazuten, naturaltasuna galtzen zutelako. Erronka handia izan zen.

ZINEMALDIA

Ikusmin handia sortu du Donostiako jaialdian. Zer sentitzen duzue?

Poz handia. Ni oso pozik nago Zinemaldian parte hartzeagatik. Niretzako eta filmerako sari handia da. Bertan aurkeztu ahal izatea nire eta gure ametsa zen. Sarrerak 15 minututan bukatu ziren, eta film eskatuenetarikoa izan da. Urduritasun pixka bat ere sentitzen dugu publikoak eta kritikak nola hartu duten jakiteagatik. Euskal Herrian gustuko izango dela uste dut.

Horrelako harrera espero zenuten?

Sail Ofizialean lehiatzen ari den film bat denez, Euskal Herriaren eginga, interes handia sortzen du, eta jendeak ikusi nahi du. Normala da. Ez da harrigarria, baina pozten gaitu. Zinema aretoetan estreinatzen denean, urriaren

2an, jendea animatzea espero dugu.

Euskal Herrian harrera ona izango duela uste duzu, baina nazioartera begiratuta?

Gaia unibertsala da. Sorgin ehizak Europa osoan egon ziren XVII. mendean. Baita Amerikan ere. Orduan, gaia liburu eta film askotan ikusi da. Filma munduko beste herrialde batzuetara salduta dago, beraz, interesa sortu du. Estatuan ere interes handia sortuko duela uste dut, Sail Ofizialean lehiatu delako, eta Espainiako bakarra delako. Espainiako zinemarako erakargarria eta nabarmena da.

Egoera arraro batean gaude. Nola ari zarete bizitzen zinemaren munduan?

Beldurra daukagu, eta handia. Pandemiarekin egoera ez da egokiena eta zinematararen jende gutxiago joaten da. Gu urduri egon gara eta estreinatuta edo ez eztabaidatzen aritu gara. Heldu den urtera arte itxoitea pentsatu dugu ere. Baina Zinemaldian aurkeztea ilusioa handia da, eta gero aretoetan estreinatzea jende jakin-minarekin eta filma ikusteko nahiarekin egongo denez, animatu gara. Jendeak jakin dezan zinema aretoak leku seguruak direla. Bakoitzak bere eserlekua dauka eta inguruan ez da inor eseriko.

EKOIZLEA

Zergatik izan ekoizlea?

Zinemarekiko zaletasuna familiarik dator. Amarengandik bereziki, baina aitak ere asko maite du zinema. Txikitatik zinema aretoetara joan naiz. Zuzenbidea ikasi nuen, eta abokatu lana egiten nuen Madrilan. Nire espezialitatea jabetza intelektuala zen eta ekoizleentzako lan egiten nuen. Mundu hori zuzenbidearen alde-

tik ezagutu nuen. Ama, Helena Taberna, *Extranjeras* dokumentala egiten hasi zen, eta ni laguntzen hasi nintzen. Ekoizle gisa lan egiten nuen, azken finean. Urte batzuetan bi munduak tartekatzen aritu nintzen eta duela hiru edo lau urte, *Acantilado* filma egin genuenean, ekoizle gisa lan egitea erabaki nuen lan handia delako. Baina prozesua naturala izan da. Betidanik gustatu zait, baina oso zaila iruditzen zitzaidan ekoizle izatea.

Mito ugari ditu ekoizletzak. Zein da zure lana?

Nire kasuan denetarik egiten dut. Ekoizle batek proiektuak aukeratu eta garatu egiten ditu. Ez bakarrik gidoia, baizik eta parte hartu behar duten zuzendariak, talde teknikoak, arte zuzendariak eta abar aukeratu ere. Batez ere, proiektua, gidoia eta zuzendaritza. Guztia kudeatu. Finantzaketa lortu behar du ere. Filmaren gainean zaude, grabaketan eta post-produkzioan. Zuzendariak erabaki artistikoak hartzen ditu, baina gehienetan ekoizlearen iritzia kontuan hartzen du. Filma prest dagoenean, munda atera behar duzu.

Proiektu berriak dituzu buruan? Sorginen gaiarekin jarraitzeko asmoa duzue?

Nik ez ditut hainbeste film egiten, eta gaiez aldatzea gustatzen zait. Agian *Akelarre*ren bigarren zatia egin behar dugu oso arrakastatsua delako... Baina orain gaur egungo bi film prestatzen ari gara. Komedia bat prestatzen ari gara, Bilbon eta Iruñean grabatuko duguna. Felix Bizkarreta da zuzendaria. *Una vida no tan simple* da. COVID-19 dela eta atzeratu behar izan dugu. Helena Tabernak ere Isaac Rosaren *Feliz final* nobelaren egokitzea penez egiten du.



Ion Kadarso Berri Txarrak taldearen biran soinu teknikaria izan zen. UTZITAKOA

"Maite dugulako gaude musikaren munduan"

Martxoaren 7an ETS taldearen kontzertu batean soinu teknikaria izan zen, eta bat-batean "bizitza osoa" aldatu zitzaion. Ion Kadarso soinu teknikaria Bïanan jaioa da, baina Olaztin bizi da eta lanagatik sanmigelak igandean ospatzen zituen

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI

1 Soinu teknikaria zara. Zer esan nahi du horrek?

Enpresa baterako lan egiten dut eta kontzertu baterako kontratatzen dutenean soinu ekipo guztia prestatu behar dut. Bestela, taldeekin birak egiten ditut ere beste taldekide bat bezala joaten naiz taldearekin furgonetan.

2 Eta aurten zer gertatu da?

En Tol Sarmiento taldearen biran lan egiten nengibilen eta martxoaren 7an kontzertua eman genuen Zentralen, 1.000 pertsona inguru joan ziren. Hurrengo egunetan, 14ra arte, telefonoak etengabe jotzen zuen. Egunero bertan behera uzteren bat jasotzen nuen. Aste horretan bizitza aldatu zitzaigun.

3 Zein egoeratan zaude orain?

Gauza pila bat udara bukaerara atzeratu zituzten. Baina uda aurrera joan zen eta uzta-ila bukaeran bagenekien ez genuela ezer izan behar urte bukaerara arte.

4 SOS kultura, Alerta Gorria eta abarreko aldarrikapenak egiten dituzue. Zer eskatzen duzue?

Honekin aprobetxatu dugu mundu honetan lan egiten dugunok elkartzeko. Denok elkar ezagutzen dugu, baina denak autonomoak gara. Bakoitza bere alde-etik joan da, eta hau baliatu dugu gure gremioa elkartzeko eta baldintza batzuk eskatzeko. Saiatu behar gara, behintzat, gure lanaz bizitzen.

5 Bitartean zer egin duzue?

Ikusita egoera nola zegoen eta hilabete eta gehiago generamala etxean ezer egin gabe, geldirik ez egoteko familiak herrian olibondoak eta mahastiak ditu eta maiatzean eta ekainean jendea behar zutenez, etorri nintzen.

6 Nola ikusten duzu etorkizuna?

Hamaika gauza entzuten ari gara. Enpresa handiek diotenez heldu den urteko udaren bukaeran gauza handiak egiten hasiko dira. Aurrekoan esan zuten atera direla 20 minututan egiten diren PCR probak, eta agian heldu den urterako jaialdiren bat proba horiek erabilia egin daitekeela. Baina ez dakigu. Dena dago airean. Guri laguntzak orain bukatzen zaizkigu, irailean. Hor dago koska. Baina itxaropena dugu. Gustura egiten den lan bat da.

7 Hilabete hauetan kontzerturen bat egiteko aukera izan duzue?

ETSrekin *streaming* bat egin genuen, Naiz kontzertuetarako. Gero Donostiako Jazzaldian terraza batean emanaldi txikiak ere. Ekipo txiki bat. Martxotik egin dudana da. Badago hori ere egin ez duen jendea.

8 Zein talderekin aritu zara?

Aurreko urtean Berri Txarrak eta La Polla taldeen biran egon

nintzen monitore teknikari gisa. Lagunen artean komentatzen dugu, aurreko urtean kontzertu indartsuetan sartuta egon nintzen eta aurten hau etorri da eta ez da ezer mugitzen. Ez gara inor lanean ari. Denok berdin gaude.

9 Kontzertu batean pentsatzen dena baino askoz ere jende gehiagok lan egiten duela aldarrikatu nahi duzue ere, ezta?

Jendeak ikusten duen ikuskizunaren atzean ordu eta jende pila bat dago. Kamioia iristen den momentutik agertokian lehen akordeak entzuten diren arte. Monitore teknikariak hitz egiten dudanean esan nahi dut eszenatokiaren izkin batean egoten naizela musikari bakoitzaren-dako nahasketak egiten.

10 Zer behar da teknikari izateko?

Bokaziozko lan bat da. Lanerako gogoia izan behar duzu, baita logura pasatzeko gogoak izatea ere. Gainera, pisu asko hartu behar da eta kilometro asko egin behar dira.

11 Olaztin bizi zara, eta aste-buru honetan sanmigelak izango ziren. Nola bizitzen dituzue?

Egian esan, nik sanmigelak igande arratsaldean disfrutatzen ditut, lanetik bueltatzen naizenean. Egutegia begiratuta aste honetan Donostiako musika jaialdian egon beharko nintzatekeen. Asteazkenean hasiko nintzateke lanean Lasarteko hipodromoan eta sanmigeletara igandean iritsiko nintzateke; bazkaldu eta arratsaldetako plana pixka bat ikusi. Logurarekin. Horiiek izaten ziren nire festak. Baina igandea aprobetxatzen nuen.

EZAGUTU GURE IDEIEN EZTANDA

gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu • 948 564 275 • info@gkomunikazioa.eus